

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA  
2019-11-22 OSTIRALA / 708. ZENBAKIA / 2. AROA  
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKI.KOM

Ez dut ausarta  
izan nahi,  
askea baizik!

A-25 / 8-9



**Joseba Ezkurdiak Lau T'erdiko txapela jantzi zuen merezimendu osoz eta katedraren iragapenak irauliz** / 2-3

**Lizarragak San Klemente festak ospatuko ditu gaurtik igandera. Asteartea jubilatuen eguna** / 10

**Peio Reparaz musikari arbizuarrak Zetak aurkeztu du, musika talde bat baino gehiago** / 23



**Guaixe 25**  
batzen gaituena

**Batzen gaituena galaren unetxo guztiak** / 11-14



**m**  
Mondragon  
Unibertsitatea  
Goi Eskola  
Politeknikoa

## Goierriko Campusa

ORDIZIA

**MEKANIKAKO INGENIARITZA  
GRADU DUALA**

**ATE IREKIAK**  
AZAROAK 28 · 17:30

**Eman  
izena**



Finaleko lehen zatia oso gogorra izan zela aitortu zuten bi finalistek

. ASPE

# "Nik konfiantza banuen; finalera oso ondo iritsi nintzen"

## JOSEBA EZKURDIA LAU T'ERDIKO TXAPELDUNA

Katedraren ustea irauliz, Ezkurdiak Lau T'erdiko txapela jantzi zuen, Altunari 22 eta 16 irabazi eta gero. Orain Binakakoan murgilduko da arbizuarrak, Martija biko duela



Berarekin urduri jartzen diren guztiei eta hurbilekoei eskaini zien txapela. @NAVARRARENA

### Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Igandean katedrak Altuna jotzen zuen Lau T'erdiko finaleko faboritoa, alde nabarmenarekin. Apustuak Altunaren alde dolean atera ziren, 100-50era, eta pilotazale ia gehienek Altuna ikusten zuten txapelarekin, nahiz eta Ezkurdiak aurreko urteko txapela defendatu eta finalera ondo iritsi zela adierazi. Gipuzkoarra txapelketa bikaina egitetik iritsi zen finalera eta arbizuarrari, aldiz, tarteka ederki sufritzea tokatu zitzaion finaleko txartela lortzeko. Baina arbizuarrak katedraren ustea irauli egin zuen eta finala 22 eta 16 irabaztea eta lau t'erdiko bigarren txapela jantzea lortu zuen, partida oso gogorrean fisikoki eta mentalki bikain jokatu eta Nafarroa Arenan zeuden pilota zaleen gehien-go baten babesak eman zion laguntzarekin. Aldiz, faboritoa izatearen zamak Altuna kaltetu zuen.

### Txapela ondoan dituen guztiei eskaini zien

Nafarroa Arenara bera animatza zera joandako lagunei eskerririk

beroenak eman zizkien Ezkurdiak. "Ez da erraza, azkenean goizetik etortzen dira, eta bazkaria, frontoia... gastu ederra da haiendako, baina esfortzua egiten dute eta esker ona besterik ez ditut haiendako. Babes handia dira niretako eta ea halaxe segitzen dugun urte asko" aipatu zuen. Txapela bere ondoan dau den guztiei eskaini zien. "Nire ondoan eta atzean dagoen jende guztiari, nirekin oso urduri jartzen den jende guztiari. Azken finean, amak eta aitak, anai-arrebek eta neskak sufritzen dituzte final aurreko tentsio momentuak, eta eurendako. Beraiek gabe hau ez litzateke posible" azpimarratu zuen.

Oso pozik zegoen Ezkurdiak, are kontentuago Arbizon egin zioten harrerarekin. Aurreku eta lore eskaintzaren ondoren, afaldu eta txapela ospatzeko tartea heldu zitzaion. Astelehenean, berarekin egoteko aukera izan genuen. Bezperan lo egitea kosta zitzaiola aitortu zuen, final eta partida garrantzitsuak jokatutako ondoren gertatzen zaion bezala.

### Zer moduz joan dira ospakizunak?

Oso ongi, gustura. Afaria oso ongi, lagun eta familia artean, eta ondoren ere oso ongi pasa genuen. Gaua asko luzatu zen, ez dakit zein ordutaraino... (kar, kar...). Finalak ez dira egunero jokatzeko eta hori ospatu beharra zegoen.

### Altuna zen faborito nagusia eta alde horretatik garaipen honek iazkoak baino zapore hobea izan du zuretzat?


Ez bereziki... Egia esan, aurtengo asko disfrutatu dut banekielako partida oso zaila nuela, Jokin iazkotik aldatuta zetorrela, oso ongi ailegatzen zela; baina aurreko urtekoa ere asko disfrutatu nuen. Izan ere, azkenean finala finala da; egoera guztiak diferentiek dira baina bi final irabaztea niretzat oso handia izan da.

### Iaz Jokin finalera ez zela bere onenean iritsi esaten zen, baina aurten bere onenean zegoen eta irabazi egin diozu.

Iaz asko esan zen, lesiotik zetorrela eta ez zegoela ongi, baina finalerako nik badakit ongi ailegatu zela. Aurten berak oso



Ezkurdiari harrera oso beroa egin zioten Arbizon, aureskua eta lore sortak barne.



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Etxe pasiboetarako egokia

5 9000

Beirak lehorrean jarrita

STV

Isolamendu nukleo indartsua

IKD

Aparteko azala koloreztatua

propkolo

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Astlehenean finaleko irakurketa lasaiago bat egiteko aukera izan zuen txapeldunak. Arbuzun hartu zituen komunikabideak, nekatuta baina pozik.

txapelketa ona egin du, finalerdietan erakustaldia eginez. Finalera beldurgarri sartu zen, momentu oso onean. Baina nik finalean jokatzeko asmatu nuen; uste dut ongi jokatu nuela taktikoki, eta oso pozik nago.

**Ez finalean bakarrik, aurreko bi astetan ere disfrutatatu duzu, txapelketak ekartzen duen guztiarekin.**

Bai, lasai nengoen eta momentu bakoitza aprobetxatu nahi nuen, egun guztiak disfrutatzea, bai entrenatzeko garaiak, elkarrizketatzeko tarteak... momentuan momentukoak bizitzea nahi nuen eta disfrutatatu dut. Lasai nengoen, finalera ongi ailegatu nintzela banekien, gauza ongi aterata da eta horrela hobe. Baina egia esan, galdu edo irabazi, argi nuen momentu horiek bizi behar direla, disfrutatatu behar direla.

**Zuk aurreikusitako bezala joan zen finala? Gidoia bete zen?**

Beno... bai, azkenean zaila da asmatzea; banekien fisikoki gogorra izango zela, hasieran tentsio handikoa eta erritmo han-

dikoa izango zela. 12-ra arte hala izan zen; tanto oso gogorrak, pilotakada azkarrak, pilotakada asko, partida gogorra, hasiera exigentea. Partida gogorra izango zela dudarik ez genuen eta gidoiaren barruan bazegoen.

**Uste duzu bera ez zela bere maila ematen ari?**

Nik Jokin ongi ikusten nuen. Hasiera gogorra izan zen eta Jokin ongi zegoen. 7 eta 10 aurretik joan zen, ongi zebilen, asko ari zen defendatzen; 11-ra arte partida gogorra egin genuen. Erdetik aurrera pixka jaitsi zen, buruz gehienbat, baina Jokinek oso gutxi behar du sake-errematearekin kristoren arriskua egiteko. Tanta egiteko ez du ezer behar eta banekien partida ahalik eta azkarrenen itxi behar nuela, zeren aukera txikiena ematen badiozu aprobetxatu egiten du. Hori argi ikusi zen, 16 eta 12 aurretik nengoa, bi sake eta beste sake-erremate batekin 15ean jarri zitzaizkidan. Argi nuen azkar itxi behar nuela partida.

**Sinisten zenuen txapela zurea izango zela Joseba?**

Nik konfiantza banuen. Txapela irabaztea zaila da, baina banekien nire jokoa egiten banuen aukerak izango nituela. Ez nuen partida luzatzeko beldurrik, fisikoki eta buruz ongi iritsi nintzelako, duda gutxiarekin, nire buruarekin konfiantza handiarekin. Gauzak ongi eginez gero aurrera gai egiteko izango nintzenaren konfiantzan nuen.

**Ez zen partida eroso izan, eta ongi eutsi zenion.**

Momentu klabeak izan ziren hasieran. Tentsio asko zegoen, 7 eta 10 bera aurretik jarri zenean momentu klabea izan zen niretako: sakea lortu nuen eta partida berdindu nuen. Baina gero, aurrerago, 16 eta 15 hurbildu zitzaizkidan... 18tik aurrerakoak auspo handia eman zidan; atsedenetik bueltan nire aldeko 3 tantoak azkarrak izan ziren eta horrek airea eman zidan.

**lazkoa kasualitatea ez zela izan erakutsi nahi zenuen aurten. Eta lortu duzu.**

Finalera sartzea nahi nuen, izako finalera sailkatzea elementu puntual bat ez zela izan erakusteko. Gainera, finalean sartu naizen moduan sartuta, bi partida oso gogor eginda... batean atzetik joan eta buelta emanda eta finalerdietan ni tanto bakar batera jarri, eta Jaka nola gerturatu zitzaizkidan ikusita azkenean partida irabaztea... Txapelketa honek asko indartu nau, azkenaldi honetan nire jokoa erekin eta buruarekin konfiantza handia ari naiz garatzen eta hori da garrantzitsua.

**Hiru final jokatuak eta hiru irabaziak Joseba, bi lau t'erdiko txapel eta binakako bat.**

Garrantzitsua finalak jokatzeko da, baina zaila da irabaztea. Oraingo dena ari da ongi ateratzen, ea horrela jarraitzen duen. **Jokin bereziki izorratuta ikusi genuen, jota.**

Final amaieran lur jota ikusi nuen, bai. Finalerdiak nola jokatu zituen ikusita, erakustaldiak eginda, berak esperantza zuen

irabazteko. Gaztea da, 23 urte ditut, 5 final jokatu ditut, Lau T'erdiko lau segidan eta sekulako pilotaria da, pilotari askorendako eredu. Langile amorratua, asko entrenatzen du eta etorriko zaizkio txapelak Jokini, asko etorriko zaizkio...

**Katedrarendako bera zen faborito argia, dirua bere alde aterata zen bikoitzera...**

Jokini jende askok irabazita ematen zion finala. Bera zen faborito argia, eta nik uste dut berari pisua eman diola horrek, kalte egin diola. Berak bere burua oso ongi ikusten zuen eta uste dut presio horrek mina egin diola, azkenean zaila da hori eramatea, tentsio eta presio hori. Zaila da buelta ematea, baina azkenean katedrak uste duena nik ezin dut kontrolatu; horri buelta eman behar diot eta listo.


**Frontoiaz ez zuela hitz egingo esan zuen Altunak. Ezker pareta horrek "estrañoak" egiten dituela esan duzue, baina horren txarra da?**

Nafarroa Arenak ezkerreko pareta exigentea du, latza. Ni ere errestita beldurrez joaten nintzen, itxoiten ea ze akats egin behar nuen... Baina hori normala da. Bilbokoa ere frontoi zaila zen hasieran, baina jokatzeko ikasi dugu, bai pilotariak eta bai frontoiak. Pena da frontoi honetan urtean barna gero ez dela jokatzeko, eta horrela zaila da egitea. Baina bestela frontoia oso ona da; lurra oso ona da, frontisa ere ona, eta ezker paretak detaile horiek ditu.


**Non duzu txapela, amarenean?**

Bai, oraingo bai, besteen ondoan. **Binakakoari ekingo diozue ostiralean (gaur).**


Bai, ostiralean (gaur) Jokinen kontra jokatuko dut -Altunak Ladis Galarzarekin osatuko du bikoa eta Ezkurdiak Martijarekin-. Beste txapelketa polit bati ekingo diogu (ikus Guaixeko 17. orria). Luzea da eta ea maila ona ematen dugun eta borrokan gauden goian egoteko.



Koadrilako babes estua izan zuen Ezkurdiak, pankarta eta guzti.



Joseba Ezkurdia Nafarroa Arenan, sakea egiteko prest. Artekarietan lan handia izan zuten, dirua Altunaren alde aterata zelako.



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

## Gari montoneko txoriak

Nola hezi gure seme-alabak, haur eta gaztetxoak? Gure gurasoei askotan entzun izan diegu beraiek guk baino aukera eta baliabide gutxiago izan dituztela bizian aurrera egiteko. Bestalde, gure seme-alabek denetarik dutela, baita etorkizunean gu baino makurrago biziko direla ere (ikusteke dago) aipatzen da.

Gauza da gure seme-alaben multzo zabala Gari montoneko txoriak izan direla edo direla, ez beraiek hala erabaki dutelako, baizik eta egoerak horretara eraman dituelako. Etxean edonolako gauzak eskatu eta emateko adina egon denez, eman egin zaizkie. Nahi adina eskaera bete zaizkie, batez ere, arlo ekonomikoarekin zerikusia dutenak (salbuespenak albait).

Garai txarrak datozenerako, geroz, etorkizuneko belaunaldi hauek bizitzaren egoera kaskarretarako ez daudela hain prestatuak, ez hain zailduak, esan genutuen. Beharrak ez dituelako prestatu, egon diren baldintzek ez dute berez erresistentzia hori garatzen laguntzen.

Sarri entzun dugu "beharrak erakusten du" esaldia, baina beharrik ez dagoenean, haur eta gaztetxo horiek nola ikasiko dute beharrak erakusten duen hori? Nola irakatsiko diegu? Zer gertatzen da bizirako prestakuntza hori bere kabuz ez badator?

## ZER GERTATZEN DA BIZIRAKO PRESTAKUNTZA HORI BERE KABUZ EZ BADATOR?

Nire ustez, etxetik edota ingurune hurbiletik jasotako heziketak bete behar du hutsune hori, eta horrek

gurasoon lana zaildu eta nekezagoa egiten du, ahalegin gehiago egitea eskatzen digu, ezetz gehiago esan behar ditugu, erresistentzia gehiago egin behar da. Eta irudipena dut gurasook sarritan ez garelako horren kontziente eta laxo samar jokatzen dugula, mugak lausotuz edota pentsatuz hori eskolak eginen duela edo eskolari dagokiola. Baina, zalantzarik gabe, irakasbide honen ardura helduona da, gurasoona, alegia.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## GUTUNA

### Greba Orokorra, indarrak metatu eta eredu propio bat eraikitzeko tresna

#### GAIZKA UHARTE BALDA

SAKANA, LARRAUN ETA LEITZALDEKO LABEKO IDAZKARIA

Azaroaren 16an pentsiodunek Euskal Herriko kaleak hartu zituzten. Euren aldarrikapenen artean, 1080 euroko pentsio minimoa eta pentsioen erreformak atzera botatzea zegoen. Aste honetan Hydro Extrusion enpresako langileek 6 lanuzte egun beteko dituzte soldata arrakalarekin amaitzeko asmoz.

Norbaitek bere buruari galdetuko dio zergatik aipatzen ditudan bi borroka hauek. Nere ustez, askotan langileen batasunaz hitz egiten dugunean, klase subjektuaren berrosaketaz hitz egiten

dugunean, ez dugu asmatzen aurrean ditugun aukerak aprobetxatzen.

HYDRO enpresan eztabaida interesgarria sortu da. 2012. urtean enpresak krisiaren testuingurua aprobetxatuz, kontratazio berrientzat lan baldintza kaxkarragoak inposatu zituen. Orduetik, lanpostu berean egon daitezkeen bi pertsonen soldata ezberdinak izan ditzakete, eta haserre edatu da enpresan. Haserre horren aurrean eta sua itzali nahian, UGT eta CCOO sindikatuek enpresarekin akordio bat erdietsi dute egiturazko arazoa mantenduz. Honen aurrean langile talde batek sinadura bilketa jarri zuen martxan, eta LAB sindikatuak bat egin genuen lanuzteak deituz. Ondorioz, antzinatasuna eta soldata hobeak dituzten langileek bat egin dute antzinatasun gutxiago duten langile prekarioekin.

Badirudi ezer irabaziko ez duten langile batzuk, dena irabazteko duten horiek borroka batean elkartu direla. Hau ez da guztiz horrela, gaur egun pentsio sistema antolatua dagoen moduan lan munduan sartzen ari den langile prekarioen kotizazioek bermatzen dutelako langile horien pentsioa. Soldata duin baten aldeko borroka, etorkizuneko pentsioen aldeko borroka ere bada. Hau guztia kontutan izanik, urtarrileko grebaren aurrean egonik, borroka batzen gaituela azpimarratu nahi dut. HYDROko borroka, langile egonkor eta prekarioak batu ditu, borroka horrek pentsio duin baten alde egiten du, pentsioak beste eskubide batzuk bermatzen ditu, eta hari horri jarraikiz, eredu sozial eta ekonomiko justu baten alde indarrak metatzeko aukera paregabea da greba.



## OBJEKTIBOTIK

### Aritzalko zabortegia?

Maite ditugu gure bazterrak, gure basoak, mendiak, ibaiak... Horregatik, uzten dugu izozkailu bat basoan. Etxetresna elektriko hori guztiz naturala delako, basoko edozein piztiaren pareko. A zer lanak hartu dituen bakarren batek. Furgonetan izozkailua sartu, basora eraman inork ikusten ez duen orduan... Sakanako Mankomunitateko 948 464 867 telefonora hots egin eta Emausko Traperoak etxetik jasotzera pasako zaizkizu. Inolako lanik hartu gabe. Gainera, etxetresna berria erosiz gero, dendak bestea jasotzen du. Edo Amazonen erositako da?



# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
eta Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administratzailea:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Kolaboratzailea:

Munia El Marhoum Iruretagoiena  
Miren Arregi Olivenza

#### Zuzentzailea:

Miren Alonso Raskin

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
Irene Trece Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



**Nafarroako Gobernua**  
Gobierno de Navarra



Sarituen artean Guaixeko lankideak.

### Guaixe Tokikom Saritan bi mailatan finalista

Tokikom elkarteak bere izena hartzen duen sariketaren bidez azken urtean euskarazko toki komunikabideetan argitaratutako portadarik, edukirik eta ikus-entzunezkorik onenak saritzen ditu. Epaimahaiak maila bakoitzerako hiru lan finalista aukeratu zituen. Eta haietako bietan Guaixe zegoen. Azal onenaren saria eskuratzeko finalisten artean zegoen Altsasun ospatutako Nafarroa Oinezen ondoren argitaratutakoa. Hari buruz epaimahaiak "argazkiaren enkoadorearekin eta azaleko gainontzeko elementuekin egindako joko ederra" goraiatu du.

Eduki onenaren sarirako finalista, berriz, 1918ko gripeak Sakanan utzitako heriotza arrastoaren berri ematen zuen erreportajea izan zen finalista (2018-11-30ean argitaratua). Bigarren urtez jarraian izan da Guaixe finalista eduki onenaren mailan. 2016ko kinto ospakizunetan Altsasun izandako sexu erasoaren epaiari egindako jarraipenagatik izan zen joan den urtean.



Euskaraldia batzordeetako kideak Lakuntzako kultur etxean trebatzen.

### Etorriko dira ahobizi eta belarriprest berriak

Euskaraldiaren Nafarroako aurkezpen festa Iruñeko Zentral aretoan egingen da larunbatean, 11:00etan

#### SAKANA

Dagoeneko ikasiak gara. Bada-kigu zer den Euskaraldia. Jakin bada-kigu euskararen erabilera handitzeko ariketa soziala dela. Badituela bi rol: belarriprest eta ahobizi. Eta rol horiek ez daude la euskararen ezagutzarekin lotuta. Jarrera bat direla. Belarriprestaren jarrera da euskal hiztunari esatea: hitz egidazu euskaraz, lasai, ulertzen zaitut; baina nik erdaraz edo euskaraz erantzunen dizut. Ahobiziak, berriz, toki eta ordu guztietan euskaraz hitz egiteko rola bere egiten duen pertsona da. Rolak hartuz, Euskaraldiarekin ikasi genuen gure inguruan uste baino euskaldun gehiago zeudela. Eta beste irakasgaia izan zen bi roletako jendea elkartzean komunikatzeko ez zela erdaraz izan behar, elkarriketa elebidunak sortzen zirela, eta elkar ulertzen genuela. Hiztunak maila berean

egonda, euskarak irabazten zuela, ordura arte elkarriketa horiek erdaraz baitziren.

Bihar urte bat beteko da aurreneko Euskaraldia hasi zela. Abenduaren 3ra arte, 11 ariketa egun izan ziren. Aurreneko Euskaraldiarekin 2.609 sakandarrek egin zuten bat. Heldu den urtean, atzera ere, Euskaraldia egingen da, azaroaren 20tik abenduaren 4ra, 15 egun. Eta Sakanako batzordeek estreinako edizioan bezain beste parte-hartzaile, edo gehiago, izatea nahiko lukete. Horregatik, dagoeneko, Euskaraldia batzordeak hasi dira herrietan lanean. Besoak zabalik hartuko dituzte parte-hartzaile berriak. Izan ere, Euskaraldia behar bezala prestatzea bera ariketa bat da, elkarlanean hobe egiten dena. Baina ariketa egiteko batzordeak aktibatu eta herriek izena eman beharko dute.



UTZITAKOA

### Euskararen arnaseguneai aitortza

Arnasa Gara ekimenaren Etxarri Aranazko aurkezpenen "Kartzela" web-sailaren bi kapitulu ikusteko aukera izan zuten. Bi aktore bertan izan ziren. Arnasgunetako herritar diren aldetik, haien bizipenak kontatu zituzten. Etxarriarrak, "harrokeriarik gabe, baina harrotasunez" euskaraz bizi eta euskara inguruko herrietara zabaltzera animatu zituzten.



ETB

### Irañetako Udala berrituta

Irintarrek udala berritzeko hauteskundeak izan zituzten igandean. Zentsua 131k osatzen zuten eta 69k eman zuten botoa. Boto txuri bakarra izan zen. Jose Ignacio Arangoak 54 boto jaso zituen, Ainhoa Berazak 53, Sara Lakuntzak 48, David Berazak 45 eta Odei Zabalak 18. Irañetako Udala berrituta osatzeko bilkura abenduaren 7an egingen da.

**GOIZERO**  
10:00-12:00

**EGUN ON**  
**SAKANA**

107.3 FM

**beleixe**

**ZUZENEAN**

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

**ONLINE**  
ENTZUTEKO  
GUAIXE.EUS

irratia@beleixe.eus

ZURE NEGOZIOAREN  
ERAKUSLEIHOA,  
BELEIXE IRRATIA.  
JARRI HARREMANETAN  
GUREKIN!  
948 567 074

# Zertara bideratuko ditu udalak 30.000 euro?

Parte hartze aurrekontuen bidez olaztiarrek udalak 30.000 euro zertara bideratuko dituen erabakiko dute. Hilaren 30era arte aurkez daitezke proposamenak

## OLATZAGUTIA

Bigarren urtez Olatzagutiko Udalak parte hartze aurrekontuen prozesua abiatu du. Joan den urtean 20.000 eurori zer helburu eman erabaki zuten olaztiarrek. Aurtan, berriz, 30.000 euroko poltsari zein erabilera eman proposatu dezakete olaztiarrek. Udal bizitza eta erabakitze ahalmena olaztiarregana hurbiltzeko helburua du prozesuak. Proposamenak aurkezteko epea astelehenen zabaldu zuten udalak eta hilaren 30era arte hala izan da. Proposamenak edozein olaztiarrek aurkez ditzake udaletxean edo bertako postontzian, inolako adin mugarik gabe. Horretarako,

udaletxean edo [www.olazti.eus](http://www.olazti.eus) web orrian dagoen inprimakia bete behar da.

Behin olaztiarrek proposamenak eginda, batzorde misto batek aztertuko ditu. Besteak beste begiratuko dute udalaren eskumena den, halako inbertsioa egiteko lege baimena ote duen udalak, 30.000 euroekin egingarria den eta abar. Egiteko hori abenduaren 2tik 13ra egingen da. Azkenik, batzordeak aukeraturako proposamenak aukeratzeko bozketa egingen da. 16 urtetik gorako olaztiarrek euren gogoko proposamenaren aldeko botoa emateko aukera izanen dute 012 telefonora hots eginaz edo web



Udaletxe ondoan berritutako farola.

orrian abenduaren 16tik 28ra. Boto papera hautestontzian sartu nahi duenak abenduaren 27an eta 28an izanen du horretarako aukera kultur etxean.

Joan den urteko prozesuko 20.000 euroak argiteria berritzera bideratzea erabaki zuten.

# Ur biltegia berritzeko lanen deialdia bidean

Udalak egindako deialdira enpresek ez dute proposamenik aurkeztu. Deialdia egokitu eta heldu den astean lanak emateko deialdi berria egingen du

## IRAÑETA

Jardunean den Irañetako Udalar ur biltegia berritzeko lanen deialdi berria egingen du. Lastaila erdialdean egin zuten deialdia udalak, baina Juan Anjel Beraza Gastesi jarduneko alkateak azaldu digunez, "lanak emateko deialdian, antza, diru-sail bat nahikoa justua zen eta, horregatik, enpresak ez dira aurkeztu. Orain gure teknikariek hitz egin eta deialdia moldatuko dugu. Asmoa da heldu den asterako lan deialdi berria egitea". Hala balitz, eta gauzak ongi, abenduaren 15erako enpresa eraikitzailea luke udalak. Baita atzerapenagatik lanak egiteko baimena ere.

Edateko ura jasotzen duten biltegiak ez du nahikoa gaitasunik eta Nafarroako Gobernuaren egungo araudia ez du betetzen Irañetako ur biltegiak. Hura berritzeko asmoa mahai gainean izan du udalak 2009tik, baina finantza erakundeek eragindako krisiak eta ondorengo egokitzapenak aurtan arte nahikoa finantziario ez eskuratzea ekarri dute. Toki Azpiegitura Planaren bidez foru administrazioak 180.000 euroko dirulaguntza eman dio Irañetako Udalarari.

Bestetik, Irañetako Udalar bonbillak led teknologiatik ordezkatu nahi ditu. Lanek



Argiteria aldeketa atzeratu egin da.

35.943,04 euroko aurrekontua dute. Baina Berazak azaldu digunez, "gobernuaren dirulaguntzari uko egin behar izan diogu. Aurrekontu Egonkortasun Legeak udalak ez zorpetzeko neurriengatik izan da. Ur biltegia lehenetsi dugu. Bestea hurrengorako".



Zigilatutako edukiontzi bat. Haietan arroparik ez utzi.

## Arropa biltzeko edukiontziak prezintatuta

Zinta hori-beltz batekin prezintatu dituzte, erakunde kudeatzaileak Nafarroako delegazioa ixtea erabaki du.

## SAKANA

Arropa zaharra ere egoki kudeatu behar den hondakin bat da. Berrerabili daitekeena, gainera. Horregatik, Sakanako Mankomunitateak Humana erakundearekin hitzarmena sinatu zuen. Hark ibarrean barna arropa biltzeko edukiontzi txuriak jarri zituen. Baina Humanak Mank-i berriki jakinarazi dio urte akaberan Nafarroako delegazioa ixtea erabaki duela. Horregatik hasi dira Humanakoak edukiontziak prezintatzen, jendeak han arroparik bota ez dezan.

Ondorioz, Sakana arropak biltzeko zerbitzurik gabe geldituko da. Horren jakitun Mank-en arropa jasotzeko zerbitzua eskaintzeko aukerak aztertzen ari dira. "Guretako garrantzitsua da kaleko edukiontzien bitartez arropa biltzea egin ahal izatea", azaldu digu Olatz Garde Mazkieran hondakin teknikariak. Gardek nabarmendu duenez, "arropa banatuta kudeatzea oso garrantzitsua da". Eta jakinarazi du urte gutxi barru "legez derri-gorrezkoa izanen da frakzio hori banatuta biltzea". Teknikariak azaldu duenez, "arropa ez bada banatzen zabortegean lurperatzen da, eta horrek ondorio negatiboak ditu. Aurrena, ingurumenean, besteak beste negutegi efektu gas emisioak sortzen dituelako. Atzena, ondorio ekonomikoak dira, denon artean pagatzen baitugu hondakindegian kudeatzeko ordaindu behar den tasa. Gardek egoerak sakandarrei sor diezazkieken eragozpenengatik

barkamena eskatu du, konponbidea lehenbailehen ematen saiatuko direla jakinarazi du eta orain arte arropa bereizten egingo dako lana eskertu du.

Behin betiko konponbidea iritsi bitartean, etxean duten arropa zaharra kendu nahi duten sakandarrek bi aukera dituzte: Arbizuko hondakindegira eramatea astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 15:00ak arte (google maps-en "Arbizuko Zabortegea" bezala agertzen da). Bestela, 900 730 750 telefonora hots egin eta arropa jasotzera etxetik pasatzeko eskatu.

## Bilketarako kamioi berria

Sakanako Mankomunitateak kamioi konpaktatzaile berria du ostiralaz geroztik. 135.000 euroko balio ditu. Ibilgailu berriekin Mank-en Hondakin Bilketa Zerbitzuak hamar kamioi ditu. Haietako zazpi karga konpaktatzaile dute. Gainontzeko hirurek ez dute halakorik, bata auzokopostari jarraipena egiteko erabiltzen delako, bestea edukiontziak garraiatzeko erabiltzen den kaja irekiko kamioi txikia da eta, azkenik, garbigune mugikorra dago.

# EUSKARALDIA

Aurkezpen ekitaldia Nafarroan

*Zator gurekin Euskaraldia ospatzera!*

**ZENTRAL ARETOAN  
IRUÑEAN**


**AZAROAK 23, 11:00etan**

**IBIL BEDI**

**PETTI**

**DEMODE QUARTET**

Antolatzailea



euskaltzaleen  
topagunea

Babeslea



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

EUSKARALDIA



## Eguberrietako oporretan ere, Aisiaz Blai programa

Ludoteka abenduaren 23, 24, 26, 27, 30 eta 31n eta ilbeltzaren 2, 3 eta 7an zabalik izanen da

### ALTSASU

Ikastetxeen egutegiek oporrak markatzen dutenean badira hainbat familia seme-alabak norekin utzi ez dutenak, gurasoak lanean daudelako, esaterako. Halako egoeretan errazago moldatzeko, Txantxari udal ludotekak Aisiaz Blai aisialdi programa eskaintzen du eguberrietako oporretarako. 3 eta 12 urte arteko (2007 eta 2016 artean jaiok) ume eta haurren gurasoek baliatu dezakete aukera eta aipatutako datetan euren txikiak ludotekan utzi. Bi ordu-tegi daude: 08:30etik 13:30era eta 11:00etatik 13:30era. Aurreneko ordutegiarekin plazak betetzen ez badira zabalduko da bigarren aukera hori soilik.

Izen ematea heldu den asteartean zabalduko da eta ostiralean itxi. Aukera baliatu nahi duten gurasoek 012 edo 948 012 012 telefonora hots egin beharko dute edo, bestela, [www.altsasu.eus](http://www.altsasu.eus) web orrian sartu beharko dute. Sartzeko baremoa ere osatuta du Altsasuko Udalak eta familia ereduaren arabera puntuak ematen dira. Matrikula errentaren arabera ordaindu beharko da. Haurrak aisialdi programara izen emateagatik ordaintzetan ere hobariak jaso daitezke, beti ere dokumentazioa aurkeztuta.

## Jaki bilketa handia eginen dute gaur eta bihar

Nafarroako Elikagai Bankuak makina bat boluntario mugiaraziko ditu gaur eta bihar. Baita Sakanan ere. Urteko bigarren Jaki Bilketa Handia bertan baita. Bankuko arduradunek jakinarazi dutenez, honako jatekoak behar dituzte: olio, kakao disolbagarria, galletak, pasta, lekale kontserbak edota arrain kontserbak. Horiek herrialdeko 172 gizarte erakunderen bidez premia duten 23.000 nafarrei iristen zaizkie.

Bilketa ibarreko hainbat herrietan eginen dute, ohiko tokietan. Gainera, Nafarroako Elikagai Bankuaren "pasta o pasta" kanpainaren bidez Eroski, BM eta E. Leclerc establezimenduetako kutxetan txartelak salgai egonen dira. Hori Nafarroako Elikagai Bankuari dirua emateko modua da, premia dagoenean elikagaiak erosi ahal izateko. Kutxan dirua ematen dutenek errenta aitortpenen desgrabatu dezakete. Horretarako, boluntarioei izen-abizenak eta telefonoak eman beharko dizkiete.



Peñakideak kuiak jasotzen.

## Patata Operazioak 1.200 kilo elikagai jaso zituen

Iruñeko Alegria peñako kideak Urdiain eta Satrustegi artean ibili ziren atzo. Patata operazioaren 57. edizioan Sakanako 13 herrietan egin zituzten geldialdiak eta Iruñeko Hermanitas de los Pobres edo Behartsuen Haurrideak kongrezioarendako jatekoak jaso zituzten, patatak eta kuiak batez ere. Guztira 1.200 kilo jaki eta 225 euro jaso zituzten peñakideek sakandarrengandik.

# "Oraindik egiteko asko dugu berdintasun arloan"

## IDOIA GOIKOETXEA GOMEZ ALTSASUKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

Altsasuko Udalak 2019-2023 aldirako II. Berdintasun Plana luzatzea erabaki zuen lastaileko udal bilkuran. Azaroaren 25z ere aritu gara

### ALTSASU

#### Zein arlotan lan eginen duzue?

Alde batetik, barruko lana dago. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna zeharkakoa da. Arlo guztietan landu behar da: kirolean, gazterian, kulturean, hirigintzan, langileen kontratazioan, soldatetan... Horrek gure lanean pisu handia du. Bestetik emakumeen kontrako indarkeria dago. Hirugarren arloa bizitza eta lanaren arteko kontziliazioa edo bateragarritasuna da. Horrekin batera emakumezkoen ahalduntzea eta balioen aldaketa arloa ere lantzen da.

#### Urtetik urtera balorazioa eginen duzue, ezta?

Ez dugu plana lau urtetan betetzea lortu. Lau ekintza potolo gelditzen zaizkigu legeingintzaldi honetan egiteko. Horrexegatik luzatu dute plana. Bestalde, berdintasuna lortze aldera ekintza puntualak planteatzen ditugu, baina badakigu prozesu batean gaudela. Plan batean zerbait egiten hasten gara baina hori finkatzeko eta aurrera egiteko urteak behar dira. Aurreko legeingintzaldia bukatzean dokumentu batean jaso genuen egin zena. Asko izan zen. Gauza berriak egin ziren eta bideak irekitzea beti da pozgarria, beti. Egindakoa finkatzea da beste lan bat.

#### Zein dira Berdintasun Planak ekarri dituen berrikuntzak?

Barrura begira, udalean aurrekontuak lantzen ari gara eta hiru galdera erantzun nahi ditugu: zer egiten dugu Altsasuko Udalaren aurrekontuekin? Zeinek disfrutatzen du diru hori? Emakumezkoen eta gizonezkoen zein behar betetzen dira diru horrekin? Horrela jakin nahi dugu Altsasuko Udalaren aurrekontua parekidea eta berdintasunezkoa den. Hori sistematikoki egin behar da. Berdintasun Zerbitzuak gauza batzuk egiteko diru bat izanen du. Nori iritsiko zaio diru hori? Prozesuan



Jarain app-arekin indarkeriari buruzko lan saioa eginen da abenduaren 11n.

## INDARKERIAREN BIKTIMA DIRENEN POLIZIA ARRETARAKO ELKARLAN AKORDIOA SINATU DU UDALAK

bi urte daramatzagu. Hori da berrikuntzetako bat.

Emakumezkoen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio taldea osatu genuen. Entitate askok harrera egiten diete emakumezkoei eta askotan ez dugu elkar ezagutzen. Edo ezagutzen badugu ez gara elkarlanean ari. Koordinazio taldea heldu den urtean finkatzea espero dugu. Bestetik, eta hau neretako oso garrantzitsua da, indarkeria egoeratik atera diren emakumezkoen taldea osatu genuen. Bizirik atera direnak, hala deitzen ditu legeak. Laguntza asko dago, baina emakumezkoen arteko laguntza falta da. Indarkeria egoeratik atera diren taldekoek gaur egun egoera bizitzen ari diren emakumezkoak laguntzen dituzte. Gaia oso zaila, sakona eta mingarria da. Taldea, aldaketekin, baina mantentzen da.

Ikastetxean ere lan egiten dugu. Aurreko legealdian ikastetxe guztietan lan egiten hasi ginen. Ikastetxeetako programak nahikoa finkatuta daude. Emakumezkoekin ekintzak egiteko beste programa bat dugu, finkaturik ez dagoena. Eskaerak betetzen saiatzen gara. Baina gure asmoa da programa finko bat izatea, ez hain noizbehinkakoa.

#### Lana ez da falta!

Dagoeneko berdintasun arloak udaletan nahikoa sartuta daude. Legea dugu. Gure lana oinarritzeko gauza asko ditugu.

#### Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna, azaroaren 25ean. Udalak adierazpena onartu du, ezta?

Nahikoa urte dira Nafarroako berdintasun teknikariek adierazpen bat idazten dugula eta gure udaletan aurkezten dugula. Aurtengo adierazpenean udalek gizonezkoei mugitzeko deia egiten diete. *Mugitu!* leloa du. Mugitu, alde batetik, emakumeen indarkeriaren kontra. Baina, bestetik, adierazpenak gizonezkoiei esaten die: mugitu botere egoeratik. Gizarte honetan gizonezkoak botere egoeran daude eta hortik ere mugitzeko dei egiten zaie. +[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



**BIKAIN**  
GARAJEA, S.A.L.  
948 460 037 Arbizu  
948 460 411 Altsasu

**Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA**

**Mekanika  
Elektrizitatea  
Txapa  
Margolzea**



# Udalek gizonezkoak "mugitzera" deitu dituzte

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna da astelehena eta, horren harira, ibarreko udal guztiek gizonezkoen zuzendutako erakunde-adierazpena onartu dute. Berdintasunaren alde mugitzeko deia da udalena

## SAKANA

Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuek proposatuta, Sakanako Udalek azaroaren 25aren inguruko adierazpena onartu dute. Guztiek ere argi dute "emakumezkoen hainbat bizitza-esparrutan jasaten dituzten indarkeria moten konplexutasuna". Baita "emakumezkoen eta gizonezkoen arteko disparekotasunak, munduko populazioaren erdiaren giza eskubideen urraketa etengabearen iturria baitira".

Berdintasuna lortzeko "bide luzea" egin bada ere, "oraindik zer ibilia" dagoela uste dute. Bide horretan gizonezko asko konplize dituzte. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna dela eta, udaletatik gizonezkoen "mobilizatzen segi dezaten" eskatu diete. Hortik aurtengo kanpainaren *Mugitu!* leloa. Hainbat arlotan mugitzeko eskaera egin zaie gizonezkoen: emakumeen kontrako hainbat indarkeria motaren konplize izateari uzteko, oinordetzan jasotako pribilegioei uko egiteko, berdintasunaren aldeko borrokari zein jardunari egiten zaizkien gero eta eraso ugariagoi aurre egiteko, emakumezkoen berbiktimizazioa saihesteko edota genero-estereotipoak birsortzen ez dituzten



Udalek antolatutako ekitaldietan parte hartzea deitu dute. ARTXIBOA

maskulinitate-eredutara mugitzeko.

Udalek gaitzetsi egin dute "emakumeek edozein esparru eta testuingurutan pairatzen dituzten askotariko diskriminazioek eragindako indarkeria sexistara mota oro". Horregatik, konpromisoa hartu dute "modu aktiboan lanean jarraitzeko disparekotasunen aurka, zaurgarritasun-egoeren eta emakume zein neskatuen aurkako indarkeria-egoeren sorburu baitira. Aldi berean, "gobernuak eta erakunde publikoak baita

nazioarteko entitateak eta gizarte zibila gogoeta egin eta konpromisoak hartzea" gonbidatu dituzte.

Gainera "elkartasuna adierazi diete eraso edo hil dituzten emakumei, indarkeria sexistari aurre egin behar dioten emakume eta neskatuei". Gizonezkoak "emakumezkoen kontrako indarkeria mota guztien aurrean konpromisoak eta jarrera aktiboak har ditzaten premiatu" dituzte. Indarkeria mota horri aurre egitea herritar guztien egitekoa dela gogorarazi dute.

## Egitarauko aurreneko datak

### Azaroak 22, ostirala

**17:00-20:30** Neskak eta emakumezkoak ahalduzko autodefentsa feminista tailerra, Emaginek emana. Etxarri Aranazko kultur etxean.  
**22:00** Velma eta Cris antzezlanak. Etxarri Aranazko kultur etxean.  
**22:30** Velma y Cris antzezlanak. Olatzagutiko kultur etxean.

### Azaroaren 22tik 25era

Baratze kritikoa erakusketa Irurtzungo liburategian.

### Azaroak 23, larunbata

**19:00** "Mustang" filma eta foruma Maria Castejon Leorza, ikus-entzunezkoan eta genero aditua. Irurtzungo Kultur etxean

### Azaroak 25, astelehena. Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna.

**18:00** Abesti moreak. Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.  
**19:00** Autodefentsa feminista, Altsasuko mugimendu feministak deitutako manifestazioa. Altsasuko Foru plazatik abiatuta.

### Azaroak 26, asteartea

**17:00** Izaskun Mujika ipuin kontalariaren "Gorputz osoko ipuinak" kontakizuna. Olaztiko ludotekan

### Azaroak 27, asteazkena

Baratze kritikoa erakusketa Arbizuko udaletxean.  
**19:00** Samara Velte. "Nik sinisten dizut. Bortxaketaren kultura eta sanferminetako kasua" liburuaren aurkezpena eta hizketaldia. Arbizuko Udaletxean.

### Azaroaren 28tik 29ra

Baratze kritikoa erakusketa Etxarri Aranazko plazako estalopean.

### Azaroak 29, ostirala

17:00-20:30 Neskak eta emakumezkoak ahalduzko autodefentsa feminista tailerra, Emagin. Etxarriko kultur etxean.

### Azaroak 30, larunbata

17:30 "Libre zu, libre ni" mikromusikala. Musas y fusas. Lakuntzako Kultur Etxea-n  
**19:30** "Volar" (Bertha Gaztelumendi, 2017, Euskal Herria) filma eta ondorengo foruma. Inma Mata dokumentaleko protagonistetako batekin solasaldia

### Abenduak 11, asteazkena

**18:00** Jarain.app! Indarkeria matxistarik gabeko Sakana aplikazioaren lan saio publikoa. Altsasuko lortia Kultur gunean.

**Autoen seguruak**

**MAPFRE**  
La seguridad global de confianza

**JOSE ANTONIO IMAZ PRIM**  
948 563 354  
jimazpr@mapfre.com  
San Juan 48  
ALTSASU

**Zure esperientziarik onena  
PREZIO ONENEAN**

**BILTOKI**  
TRERIE • JETEKER

**948 467 876 - Altsasu**

**PORTUKO**  
30 URTE  
Ogia egiten

## Lizarragan San Klemente, festa, gaur gauetik aurrera

Lizarratarrak udazkeneko festak ospatuko dituzte asteburuan. Eta jubilatuen bazkariarekin luzatuko dituzte asteartean. San Klemente papa, elurra tipi-tapa. Edo San Klemente, baba jan zale. Bi esaeretatik badirudi aurten bigarrenetik gehiago izanen dela.

## Egitaraua

**Azaroak 22, ostirala**  
20:00 Tripoteue, frontoian.  
22:00 Herri-afaria, Azi Iturrin. Gero, Tocan2lapolla.

**Azaroak 23, larunbata.**  
**San Klemente Eguna**  
12:00 Kalejira, Amalur.  
13:15 Meza nagusia.  
14:00 Auzatea.  
17:00 Puzgarriak, frontoian.  
18:00 Herri kirolak hair eta helduendako, ondoren txokolate-jana.  
20:00 Dantzaldia, Oharkabe.  
22:00 Herri-afaria, frontoian.  
00:00 Dantzaldia, Oharkabe.

**Azaroak 24, igandea**  
12:00 Kalejira, Amalur.  
13:15 Meza nagusia.  
14:00 Auzatea eta herriko adinduei omenaldia, auzoan.  
17:00 Hodei magoa, eskolan.  
17:30 Mus eta briska txapelketa, Azi Iturrin.

**Azaroak 26, asteartea.**  
**Jubilatuen eguna**  
13:15 Meza.  
14:30 Jubilatuen bazkaria, Bargazpin.



Arregi eta Martinezen oroigarria.

## Arregiren "memoria" mantentzea, beharrezkotzat

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak erakunde-adierazpena onartu du

### LAKUNTZA

Mikel Arregiren "oroitzapena eta memoria bizirik mantentzea beharrezkoa da". Halaxe esan du Parlamentuaren Bozeramaileen Batzordeak. Erakundeak Arregiren oroimeneko monolitoak "behin eta berriz sufritutako erasoak errefusatu" ditu, "bere memoriaren eta herritarren elkarbizitza normalizatu eta bakesuaren kontrakoak direlako". Parlamentuak "indarkeria ekintza bat bera ere ez errepikatzeke berme gisa, politika arrazoiengatik biktima izan diren guztien egia, justizia, aitortza eta erreparaziorako pausoak emateko borondatea" adierazi du.



Joateko gonbidapena egiten.

## Herriko memoriaren 3. atalaren aurkezpena

Altsasuko Memoria taldeak egingen du, larunbatean, 19:00etan, lortia kultur gunean

### ALTSASU

Altsasu Memoria taldekoak herriaren berri jasotzeko lana jarri zion bere buruari, "historia ofizialaren bazterrean, ezpondetan zokoratuak izan diren Altsasuko protagonistak eta gertakariei" argia emateko. Altsasuko historiaren azterketa horren azken atal 1993 eta 2019 urteen arteko gertaerak jasotzen ditu. Aurreko atalen aurkezpenetan bezala, oraingoan ere gertaeren berri ematearekin batera musika emanaldiak izanen dira.

Aurreneko atala 76 urtetik 1950 urtera arteko tartea hartu zuen eta bigarrenak 1950 eta 1992 urteen arteko aldia.



AEMk kartel baten irudia.

## Amnistia eguna larunbatean AEMk antolatuta

Nafarroako Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak Amnistia eguna antolatu du

### ETXARRI ARANATZ

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduko (AEM) kideek "errepresialiatu politikoen existentziaren aldarrikapenaren bitartez gatazkaren izaera politikoa defendatzen" dute. Gaineratu dutenez, "pairatu dugun errepresioaren izaera politikoa izan zenez, hari emandako erantzuna politikoa izan behar du". Eta, horregatik, amnistia aldarrikatzen dute. "Euskal langileok eta sektore herritarrok zinez arituz gero, amnistiaren aldarrikapenaren aldeko indarrek Espainiar eta Frantziar Estatuak mugiarazi ahal izanen ditugu". AEM-ko kideek ere "okupazio indarrak alde egitea" eskatzen dute. AEM-k "amnistiaren aldarrikapenari borrokaren zilegitasunaren defentsa batu" dio orain.

Mural bat margotuko dute 11:30ean. Kultur etxeak "estatu zapaltzaileen inpunitatea" hitzaldia hartuko du 12:00etan. 15:00etan bazkaltzera eseriko dira. 17:00etan dokumental sustutzea izanen da. Ikus-entzunezkoak 16 errepresio kasuren berri emanen du. *Borrokatzea zilegi delako, amnistia osoa* leloa du 19:00etako manifestazioak. Gauerdian gaztetxean Ultimatum, talde sorpresa eta gaupasa izanen dira.



Izen ematera deitzen.

## "Herrialde Katalanetako borroketatik ikasteko"

Hara joateko txartelak ohiko tokietan daude salgai 30 eurotan, ikasle eta langabeendako 25ean

Sakanako Gazte Asanbladek Herrialde Katalanetara antolatutako "brigada politikoa". Abenduaren hasieran 3 eguneko egonaldia egingen dute eta hango hainbat eragilerekin harremanak izanen dituzte, "bidea argitzen laguntzen duten esperientzia guztietatik ikasteko". Gazteek diotenez, "Euskal Herrian zeharka begiratzen diogu ere Kataluniar Herri Langileak aurrera daraman borrokari". Espainiar konstituzioaren inguruan eraikitako 78ko erregimenaren kontrako fronte nagusia baita. Zoritxarrez Estatuaren erantzuna ez da parametro errepresibotatik aldendu eta hamarnaka preso politikoa dituzte egun".

## Ospa egunean "gorroto delitua" dagoen ikertuko dute

Espainiako Auzitegi Nazionalak ebatzi du agorriaren 31ko ekitaldietan ez dela "terrorismoa goratu" edo indarkeriaren biktimak "umiliatu". Baina instrukzioa Nafarroako Lurralde Auzitegiaren esku gutzi du "gorroto delitua" egon den azter dezan. Altsasun *Kriminalizaziorik ez, Ospa aurrera!* leloa zuen manifestazioa egingen ostiral gauean.

**Txalaparta**

**Taberna**

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

## LAN ESKAINTZA 2019/2020 IKASTURTERAKO LAN ESKAINTZAK



Andra Mari ikastolak 2019/2020 ikasturtean ondorengo profila duten irakasleen beharra dauka:

- DBHn zientzetan ordezkapenak egiteko eskaintza:
  - DBHn zientzako arloak emango dituen lizentziatua edo graduatua + irakas-kuntzarako masterra (CAP) + EGA edo balioidea. Scratch eta robotikako ezagutzak kontuan hartuko dira.
- PT eta laguntzailea %35eko lanaldian. Ikastute osorako lan eskaintza:
  - Lehen Hezkuntzako gradua Pedagogia Terapeutiko albamenean, pedagogian edo psikopedagogian lizentziatuta edo titulu balioideak + EGA edo balioidea.

Interesa izanez gero, curriculumak Andra Mari ikastolako web orrialdetako "Lan Poltsa" atalean sartu ([www.andramariikastola.eus](http://www.andramariikastola.eus)) azaroaren 24ra arte.

# Unetxoak

1994ko abenduaren 20an Guaixe hilabetekariaren lehenengo alea publikatu zen. Duela 25 urte. Urtero ez denez mende laurdena betetzen, urteurrena ospatzeko Batzen gaituena. *Guaixe25 urteurren gala* antolatu zuten Guaixe Fundazioko langileek

Jean-Pierre Jeunet zinemagilearen *Le fabuleux destin d'Amélie Poulain* filmaren protagonistak, Ameliek, bizitzaren gauza txikiekin disfrutatzen du. Besteak beste, eskua dilista zaku batean sartzea edo krema katalanaren azukre gogorra koilara batekin apurtzea gustatzen zaio. Unetxo horiek pozik jartzen dute Amelie. Izan ere, zer izango zen bizitza unetxorik gabe? Gala baterako ilusio handiarekin erosten den soineko dotorea, lan gogorraren ondoren lehiaketa batean finalista izatea, ekitaldi batean espero ez den eta jasotzen ez den oparia edo musika emanaldi bat entzutea. Memorian gordetzen diren une xumeak dira.

Azaroaren 15ean, ostiraletan, hainbat Sakandarren in-kontzientean geratuko diren hamaika unetxo txikiez osatutako gala handia bizi izan zen lortia kultur gunean. Ekitaldi xumea, baina "hunkigarria", "elegantea" eta "polita" ikusleen esanetan. *Batzen gaituena*. *Guaixe25 urteurren galan*, nola ez, 25 urte atzera egin zen eta Guaixe proiektu komunikatioboaren historia erreparatu zen, gaur egungo aisaldi moldetara egokituz: ikus entzunezkoa, Sakanako artistek egindako musika, antzerki eta poesia unetxoekin uztartuta. Gala xumea baina elegantea, minimalista baina eroso, eta formala baina informala.



## BATZEN GAITUENA

KIT-a nahi duzu?



**POLTSOA + TXAPAK + BOLIGRAFOA**

Bazkideendako 4 € / Gainontzekoendako 6 €

Lor ezazu Guaixe eta Beleixeren bulegoetan, Altsasuko AEEKren  
Itsasi Euskaltegian edo 948 564 275 telefonora deituta



# batzen gaituena


Galaren elementu nagusia eta bereizgarria *Batzen gaituena* elkarrizketa-dokumentalaren mustutzea izan zen. Aitziber Etxaizek eta Olatz Irizarrek Amaia Amilibiarekin batera Guaixe sortu zutenek, eta Iñaki Mundiñano hasieratik proiektuan parte hartu duen euskaltzaleak, Guaixeren 25 urteak laburbildu dituzte Aritz Leozek egindako ikusentzunezko honetan.

Dokumentala lau zatitan banatzen da eta istorioaren haria zuhaitzak dira. Sakanan adierazgarri diren basoak, garai honetan marroiz, gorritz, horiz eta okre z jantzi direnak. Protagonistek Guaixeren sorreraz, hasierei buruz, profesionalizazio prozesuaz, hasieratik lagundu zuten sakandarez

eta bazkideztaren garrantziaz hitz egiten dute dokumentalean: hasierak edo kimuak; profesionalizazioa edo enborra; sakandarrak edo sustriak, eta bazkideak edo hostoak eta haziak.

Udazkena da eta lortia kultur gunearen areto nagusia ere udazkenaz jantzi zen. Dokumentalaren gaia jarraiki, galaren haria ere udazkena eta zuhaitzak ziren, eta horrela ikus zitezkeen oholztan jarritako apaingarri xumean ere. Baso bat bailiran, Guaixeren baso magikoa, hostoak ziren nagusi. Izan ere, Iñaki Mundiñanok ekitaldiaren amaieran aipatu zuen bezala, "Amilibiak, Etxaizek eta Irizarrek hazi bat landatu zuten, gaur egun zuhaitz handi bat dena: Guaixe".





# Hostoak

Ikus entzukoaren tarte bakoitzarekin musika, antzerkia, zorion agurrak, poesia eta hitzaldiak tartekatuz. 25 urteko historia laburbiltzen zuten unetxoak. Zeremonia Guaixeko erredaktorea den Mainer Beteluk gidatu zuen. Alfredo Alvaro Igoak erredaktore burua izan behar zuen berarekin, baina berandu iritsi zen Basauritik, Tokikom Sarietako ekitalditik, zetorrelako. Hasierako umoreak gala atsegina eta arina izango zela argi utzi zuen.

Usain batek, irudi batek edo abesti batek bizitzaren une jakin bat gogoraraztea ekartzen dute, eta Zaldibobo taldearen Lurra abestiaren bidez, Erkuden eta Itziar Flores abeslariak eta biolin eta zeharkako txirula joleak, Luisillo Kalandraka baxu joleak eta Aritz Goikoetxea gitarra joleak Guaixeren sorreraren garaietara eraman zuten publikoa.

Dokumentalean esaten den bezala, Guaixe Urdiaingo udaletxeko gelatxo txiki batean eta gutxiengo baliabideekin sortu zen. Ondoren, kazetarien lana ere profesionalizatuz joan zen eta teknologietara egokituz joan da. 25 urte hauetan kazetariaren munduak 360 graduko bira eman du; guztiz aldatu dira informatzeko, komunikatzeko, idazteko, maketatze, lan

egiteko moduak. Tarima Beltza antzerki taldeko Nahikari Gonzalez eta Merche Herrera aktoreek, ongi azaldu zuten kazetariaren lanaren garapena antzerki pieza batean. Idazteko makinatik ordenagailura eta ordenagailutik telefono mugikorrera.

Sakandarrak dira Guaixeko protagonistak. Sakandarrek egiten dute Guaixe. Eta sakandarrek lekua izan zuten galan ere. Hortaz, Sakanako zenbait taldek, elkartek eta norbanakoek zorion agurra bidali zuten Guaixeren deialdiari erantzunez. Guaixe-Story bideo batean Guaixe teknologia eta informatzeko modu berrietara egokitu dela, eta sakandarrok "batzen gaituena" dela argi geratu zen. Zorion agurrekin amaitzeko, Castillo Suarez idazleak galaren momenturik hunkigarrienetakoa sortu zuen, *Denbora eta tokia gurutzatzen direnean* Guaixeren 25. urteurrenerako eta galarako berariaz sortu tako poesiarekin.

Iñaki Mundiñanok hartu zuen ekitaldiari amaiera emateko ardura. Bierrik elkarteak sortu zenetik Guaixe proiektu komunikati-boan parte hartu du etxarriarrak. Guaixe "Sakanaren eta sakandarren ahotsa" izan da, "eta da" esan zuen Mundiñanok. Hortaz, "sustraiak Sakanan errotu" direla aipatu zuen: "Milaka hostotako adaburua sortu da". Hostoak sakandarrak dira.

"Guaixe ez baita posible izan babestu duen jenderik gabe".

"Guaixek adar asko ditu: handienak, agerikoenak, bistakoenak, Guaixeko langileak dira". Tarte horretan arratsaldearen bigarren unerik hunkigarriena suertatu zen, Guaixeko gaur egungo langileak oholtzara igo zirenean. "Hauk dira Guaixeren aurpegiak". Guaixetik 25 urte hauetan pasa diren kolaboratzaileak, laguntzaileak, lan egiteko prest egon den jendea, banatzaileak, zuzentzaileak eta langile izandakoak gogoan izan zituen etxarriarrak, baita diru-laguntzak eta babesa eman dute entitateak ere.

Duela 25 urte hazi bat erein zuten, "genuen". Hazia hazi da, Guaixe zuhaitz handia da dagoeneko. "Udazkenean gaude: hostoak lurrera erortzen ari dira, hosto horiek sustraiak elikatuko dituzte, eta hazietatik basoa hedatu eta handituko duten zuhaitzak sortuko dira". Bazkideak Guaixe ernaltzen lagundu duten hostoak dira, eta "orain, udazkenean gaudela", proiektua ernaltzeko eta hedatzeko laguntza eskatu zuen Mundiñanok: "bazkide egiteko txartel bakoitzarekin hazi bana banatu dugu, hazi horietako bakoitza bazkide berri bat da. Lagundu haziak ereiten, lagundu proiektu hau ernaltzen".

## Denbora eta tokia gurutzatzen direnean

Beste toki batean bizi gintezke, arrotz edo atzeritza ginatekeen toki batean, arnasa hartzen ikasi itsasotik gertu, basamortutik hurbil, edo oihan bazterretik.

Baina bizitzak koordinada batzuk eman dizkigu eta zain lodi batzuen gisan erdibitzen gaituzten autobia zaratatsu bat eta erreka isil bat.

Bizi garen ibarrean ikasi nahi dugu, eta lan egin, baina batez ere, gure hurbilekoak maitatu eta zaindu. Gure ezinak aldamenei esan. Elkarren premia dugula sentitu herriko lagunak ikusten ditugunean. Haserretu eta adiskidetu etxekoekin.

Maizegi euria ari du teilatuen artean hemen. Ibaia bulartu egiten da, autobia putzuz bete. Eta etsiak hartzen gaitu hustu egiten direlako etxeak eta dendak itxi, erdara entzuten delako euskaraz egiten zen tokietan.

Baina inondik ere errenditzen ez den lur batekoak gara, euskaraz eta euskaratik eman nahi duena bere berri etxez etxe.

Sentitu nahi dugu hizkuntzak lotzen gaituela lurrera. Irabaziko duguna gailenduko zaiola galdu dugunari.

Ez dela berdin zer, non eta nola esan.

Urtetan bete ditugu hitzez postontziak, sakelakoak, ordenagailuak eta uhinak. Euskaraz esan diegu agur maite ditugunei eta ongi etorria egin jaio direnei. Albiste latzak eman ditugu eta ikuskizun zoragarriak iragarri.

Lekukoak gara denbora eta tokia gurutzatzen diren bakoitzean.

Akordatu gara gertatu direnekin. Akordatzen gara gertatzen ari direnekin. Akordatuko gara gertatzeko daudenekin.

Hotz ezea dago kanpoan. Euria ikusten dugu leihotik. Baina aterpea ematen digute hitzek. Atzokoa, gaurko eta biharkoa lotzen dituzte, herri batekoa zein bestekoa. Hitzak dira maitatzeko gure tresna. Hitzek egiten gaituzte bertako. Hitzek egiten gaituzte euskaldun. Gure jendeak beste indar dute gure hitzek. Euskarazko hitzez ez balitz, ezinezkoa litzateke gure eskualdea.

Elkarrekin egoteko hedabide bat eta aurrera egiteko kemena. Nahikoa euriari ekiteko edo atertzeko.

Castillo Suarez





# Festa

Besteak beste, bi gauzek batzen dituzte sakandarrak: Guaixe eta auzateak. Galan sorpresak egongo zirela aurreikusi zen, eta sorpresak pixkanaka azaleratzen joan ziren. Urtebetetze bat zen, eta urtebetetze guztietan bezala, opariak egon ziren. Iortia kultur guneko aretoan sartu aurretik ikusleek opari bat jaso zuten: Guaixe25 urteurrenerako sortutako tote-bag bat barruan zenbait sorpresa zituen. Ondoren, gala amaituta parte hartzaileak kultur gunearen erakusketa gelara hurbildu ziren auzateaz disfrutatzera. Bertan beste sorpresatxo bat topatu zuten: photocall-a.

Oscar edo Grammy sariak bailiran, *Batzen gaituena*. Guaixe25 urteurren galan argazkiak egiteko tokia zegoen, baina kasu honetan erredakzio vintage bat zen eszena tokia: idazteko makina, irradi zaharra, Guaixeren erredaktore buruaren bereizgarri den bizikleta zaharra... Lotsak alde batera utzita une dibertigarriak bizi izan ziren photocall-ean. Janaria eta edaria, noski, ez ziren falta.



# Eskerrik asko!

# Tadeo lehena Madrilen eta Imaz Amorebietan

**ZIKLO-KROSA** Larunbatean Madrilgo Alapardoko XV. Ziklo-krosa irabazi zuen kadete mailako Sakana Group-Aralar taldeko Aimar Tadeo lakuntzarrak. Igandean Nahia Imaz Amorebieta-Etxanoko Ziklo-Kroseko kadeteen emakumezkoetan gailendu zen

Asteburu honetan Madrilen aritu da Sakana Group-Aralar taldeko Aimar Tadeo Arkauz txirrindulari kadete lakuntzarrak. Larunbatean Madrilgo Alapardoko XV. Ziklo-krosean azkarrena izan zen Aimar (26:33), Sergio Quevedo bigarrenari 58 segundo ateraz. Horrela, ziklo-kroseko bere lehen garaipena lortu zuen Tadeok, merezitakoa.

Hurrengo egunean Espainiako Koparako baliagarria den Alcobendaseko VIII. Ziklo-Krosean aritu zen, eta Equip Ciclista Moixent taldeko Pau Marti izan zen azkarrena kadeteetan (32:51). Aimar Tadeo 12.a sailkatu zen (34:16). Abuztuan erorikoa izan zuen lakuntzarrak eta ezin izan zen errepideko lasterketetan aritu; horregatik gogoz hartu du ziklo-krosa.

## Nahia Imaz txapelduna eta Mikel Unzilla bigarrena Amorebietan

Igandean Amorebieta-Etxanoko Ziklo-krosa jokatu zen, eta atzera ere oso ongi ibili ziren gureak.



Aimar Tadeo eta Nahia Imaz, podiumaren gorenean. UTZITAKOAK

2,800 km-ko ibilbideari 3 itzuli egin zioten kadeteek. Gaurisa Renault taldeko Unax Salterainekin lehia oso estua izan zuen Burundako Quesos Albeniz taldeko Mikel Uncillak; azkenean biak batera iritsi ziren helmu-

gara eta esprint estuan Salterain nagusitu zen (27:51.210). Uncillak 0.549 ehuneneko gehiago behar izan zituen (27:51.759). Bere taldekide Mikel Regil 17.a sailkatu zen eta Sakana Group-Aralaroko Aritz Oiarbide 21.a.



MARCA

## Munduko errekorra: 100 metro 9.55 segundotan

**IRRISTAKETA** Marbellak Marca Sport Weekend hartu zuen asteburuan eta bertan parte hartu zuen Ioseba Fernandez irristalari iturmendiarrak. Lau aldiz munduko txapelduna eta hamasei aldiz Europako txapelduna izan denak erakustaldi ederra egin zuen. 100 metroko

munduko errekorra hobetzeko bi saiakera egin zituen. Lehenengoan 9.80 segundotan gelditu zuen kronoa, eta bigarrenaren errekorra apurtu zuen, 9.55 segundotan. Azken txanpan haizea lagun izan zuela adierazi zuen, baina lortutakoarekin "oso pozik" zegoela aitortu zuen.

Emakumezkoen kadete mailan podiumaren gorenera igo zen Nafarroa-Ermitagañan dabilen Nahia Imaz Perez altsasuarra (34:06), Txorierriko Nesken Taldeko Izari Fernandezi minutu eta 26 segundo aterata. Beraz, ziklo-kroseko lehen garaipena ondu du altsasuarra. Juniorretan (5 itzuli) Quesos Albenizko Iker Mintegi 24.a sailkatu zen, Sakana Group-Aralaroko Jon Erdozia 30.a, Quesos Albenizko Oihan Etxeberria 38.a eta bere taldekide Jon Chamorro 45.a

## Burundako batzarra gaur

Burunda Txirrindularitza Taldeak urteko batzarra egingo du gaur, ostiralean, hilak 22, Iortia Kultur Gunean, 19:30ean. Urtearen errepasoa egin, kontuak itxi eta urteroko oroigarria emango diete txirrindulariei. Aurtengo gonbidatu berezia Euskadi Fundazioko Ibai Azurmendi txirrindulari profesionala da. Azurmendi Burunda klubean trebatu zuen kadete eta junior mailan zebilean eta orduko oroitzapenik ez da faltako.

# SUSTRAIKIDE

Laguntza txiki batekin, gauza handiak lortzen ari gara

**Sustrai Erakuntza Fundazioa**  
[www.sustraiarakuntza.org](http://www.sustraiarakuntza.org)  
[sustrai@sustraiarakuntza.org](mailto:sustrai@sustraiarakuntza.org)  
 ES15 3035 0162 76 1620031982

## SAKANAKO TOPAKETAK

## KIMUAK. 4. JARDUNALDIA

IGANDEAN ALTSASUN, DANTZALEKUN

10:00 Lagun Artea 09 – Sutegi

10:00 Lagun Artea 08 – Altsasu A

11:00 Etxarri-Danbolintxulo Altsasu B

11:00 Etxarri-Epele – Etxarri-Hartzabal

Atsedean: Altsasu C

## BENJAMINENAK. 2. JARDUNALDIA

UHARTE ARAKILEN

10:00 Etxarri Aranatz – Sutegi

11:00 Urdiain – Betelu

12:00 Altsasu C – Altsasu A

13:00 Aralar Mendi – Altsasu B

## Sakanako Futbol Topaketak: kimuak dantzalekun eta benjaminak uharte arakilen

Sakanako Mankomunitateak ibarreko kirol klubekin antolatutako 2019/2020ko Sakanako Futbol eta Areto Futbol Topaketak martxan daude. Bi mailatan jokatzeko ari dira jardunaldiak, benjaminen mailan eta kimuen mailan, eta helburua neska-mutiko txikienei txapelketa batean aritu ahal izatea ahalbideratzea da. Mank-etik adierazi dutenez, ez da lehiakortasuna sustatu nahi, helburua txikiak futbolaz gozatzea eta herri eta klub ezberdinekin harremana izatea da; horregatik ez da sailkapenik egiten.

Kimuen mailan 11 talde ari dira parte hartzen: Sutegi, Altsasu A, Altsasu B, Altsasu C, Etxarri-Hartzabal, Etxarri-Epele, Etxarri-Utzubar Txiki, Etxarri-Danbolintxulo, Lagun Artea 08, Lagun Artea 09 eta tarteka Betelu taldeak. Eta benjaminen mailan 8 talde dabilta: Sutegi, Altsasu A, Altsasu B, Altsasu C, Urdiain, Etxarri Aranatz, Aralar Mendi eta Betelu.

Igandean, kimuen mailako 4. jardunaldia jokatu da dantzalekun eta benjaminen mailako 2. jardunaldia hartuko du Uharte Arakilek.

## ELOMENDI TXAPELKETA.

## 7. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Roca - Zaldia 1-3

## SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1 Barasoain 18

7 Zaldia 10

## HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

Zaldia - Eneriz (Lekunberri)

## Zalduak Rocari irabazi

Zalduak garaipen polita lortu zuen Lorcaen kontra. Eneriz izango du arerio.

## Osasunako jokalariek Etxarri Aranatzera

**FUTBOLA** Hurrengo asteazkenean, azaroaren 27an, Osasunako 2 jokalariek, klubeko kideez lagunduta, Etxarri Aranatzko Kultur Etxera hurbilduko dira, 18:00etan, bertako zaleekin egon eta haien galderak erantzutera

Urteroko klasiko bat bilakatu da Osasuna taldeko jokalariek Etxarri Aranatzera egiten duten bisita. Ekitaldia Etxarri Aranatzko Udalak, Osasuna Fundazioak, Osasuna Futbol Taldeak eta Etxarri Aranatz Kirol Elkarteak antolatzen dute. Etxarrin Osasuna Fundazioko taldea dago, Sakanako beste hainbat herritan bezala, Osasuna Fundazioak kudeatzen ditu talde hauek, eta ohiko entrenamendu eta futbol partidez gain, Sadarrera eta euren herrietara bisitak antolatzen dituzte. Txikienek euren idoloak gertutik ikusteko aukera paregabea izaten dute Osasunakoek urtero egiten duten bisitarekin.

Oraindik ez dakigu zein jokalariek etorriko diren asteazkenean Etxarrira, baina euskaldunak izatea eta ahal bada ere emakumezkoen taldeko jokalariek ere bat etortzea eskatu dute Etxarritik.

## Ekitaldi irekia da, eta bertara joatera animatu dute jendea

## Peñiscola garaitu ondoren, Barça liderra dute aurkari berdeek

**ARETO FUTBOLA** Asteartean jokatu du Osasuna Magnak Barçaren kontra, Bartzelonan

Aurreko astean El Pozo Murciaen kontra injustuki galdu eta gero, ostiralean Osasuna Magna Xotak 3 eta 2 irabazi zion Peñiscolari Anaitasunaren jokatuak partidaren, Araçak sartutako 2 golei eta Rafa Usinen golari esker. Horrela, Araçak modu ezin hobean ospatu zuen talde berdearekin jada 300 partida jokatu izana. Roberto Martilek, aldiz, 400 partida bete zituen taldean.

Imanol Arregi entrenatzaileak aipatu zuenez, "nola edo ahala irabazi beharra genuen. Hiru partida generamatzan irabazi



Iaz Garcia eta Galarza egon ziren.

Jokalariek Osasunako juntako kide eta ordezkariekin hurbilduko dira Etxarri Aranatzko Kultur etxera. Asteazkenean, 18:00etan hasiko da ekitaldia eta herritar guztiak gonbidatu dituzte. Bildutako galderak erantz

tzungo dituzte futbolariak eta Osasuna klubeko ordezkariak. Bukaeran, nahi dutenek jokalariei sinadura eskatzeko aukera izanen dute.

## Osasunako baloia, kamiseta eta besteren zozketak

Osasuna taldeko babesleetak bat den Lacturalek zozketa berezia antolatu du egun horretarako, Zozketa Osasunzalea izenekoa. Horrela, Etxarriko Kultur Etxera eramaten duten 6 litroko esne-kutxa huts bakoitzarengatik, edo Lactujogurt-kutxa huts bakoitzarengatik, trukean, txartel bat jasoko dute ekitaldira hurbiltzen direnek, Osasunaren baloiaren eta egun horretan joaten diren jokalarien kamiseten zozketarako (lagun bakoitzeko gehienez 10 txartel). Aipatutako zozketa honetaz gain, Osasuna klubeko kirol eta eskola materiala ere zozketatuko da Etxarri Aranatzko ekitaldira hurbiltzen direnen artean.



Imanol Arregi, sarituta. XOTA

**Imanol, entrenatzaile onena** Imanol Arregi asteartean jaso zuen, Madrilen, 2019ko areto futboleko entrenatzaile onenaren saria, "Ramon Cobo" saria, futbol federazioko presidente Luis Rubialesen eskutik.

## FUTBOL PREFERENTEA

## 9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagunak - Lagun Artea 0-2

Etxarri Aranatz - San Miguel 0-0

## SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Beti Casedano 17

5 Lakuntzako Lagun Artea 14

14 Etxarri Aranatz 10

## HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

15:45 Doneztebe - Etxarri (Doneztebe)

IGANDEAN

15:45 Lagun Artea - Beriain (Lakuntza)

## Lagunek irabazi eta Etxarrik galdu

Barañainen, tarteka Lagunak taldeak dominatu zuen, baina ezin izan zituzten lakuntzarren lineak gainditu, ezin hobe kokatuta zeudelako. Unai Bakaikoak sartutako bi golei esker 3 puntuak Lakuntzara etorri ziren.

Bestalde, Etxarrik San Miguel hartu zuen. Defentsara mugatu ziren bi taldeak; gutxiak Etxarrik lineak luzatu zituen eta kontrako atean arriskua sortzen hasi zen, baina ez zituen gol aukerak gauzatu.

## FUTBOL ERREGIONALA

## 9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Liceo Monjardin - Altsasu 6-6

## SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA

1 Amaya 23

9 Altsasu 9

## HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

15:45 Altsasu - Salesianos (Dantzaleku)

## Altsasuk seina berdindu zuen

Altsasuk eta Liceo Monjardinek zuten onena eman zuten. Liceo 6 alditan aurreratu zen, baina 6 alditan berdintzea lortu zuen Altsasuk, Mikel Arellano, Imanol Lobo (2), Jon Lanz, Javi Guisado eta Tasio izan ziren golegileak.

## EMAKUMEEN ERREG.

## 11. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Ardoi 3-1

## SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Castejon 28

7 Altsasu 18

## HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Castejon - Altsasu (Castejon)

## Altsasuk bihar liderra aurkari

Ardoiren kontra lortutako garaipenari esker 7.ak dira Altsasuko neskek eta bihar liderraren kontra ariko dira.



## Iñigo Aritzako Txapelketa igandean Olaztin

**PILOTA** Olaztiko frontoiak hartuko du txapelketako 4. jardunaldia igandean, 16:30ean

Aurtengoa Iñigo Aritza Ikastolako Pilota Txapelketako 22. edizioa da, pilota sustatzeko antolatatu da eta urriaren 27an hasi zen. 47 neska-mutiko ari dira parte hartzen. Igandean 4. jardunaldia jokatu da, Olaztiko pilotalekuan, 16:30ean.

Izan ere, aurtengoa ikastola osatzen duten herri guztietan jokatzeko ari da txapelketa "herri guztiek osatzen dugulako ikastola" antolatzaileek adierazi dutenez. Igandean Olaztik hartuko du 4. jardunaldia, eta aldi berean bi partida jokatu dira. Igandean etortzerik ez duenari partida galdutzat emango zaiola adierazi dute antolatzaileek.

### 4. jardunaldia

Iñigo Aritza Ikastolako 4. jardunaldia igandean, 16:30ean, Olaztin

#### Umeak, benjaminak

- Arane Plaza – Eider Gastesi
- Ekhi Igeltz – Izei Orabengoa
- Jare Fortuna – Izaro Lanza
- Iker Ondarra – Ekhi Guirado
- Alaine Mendia – Anitz Anda
- Ekaitz Berdud – Ekaitz Zufiaurre
- Bidane Fernandez de Garaialde – Garazi Gartzia
- Oihan Andueza – Egoi Urtaşun
- Edorta Amillano – Igarki Agirre
- Igarki Agirre – Ekaitz Berdud

#### Kimuak

- Eneko Ganuza – Asier Zubiria
- Hodei Silva – Inhar Urteaga
- Eñaut Gastesi – Aser Navarro
- Alejandro Lopez – Mikel Arrizabalaga

#### Haurrak

- Alaitz Lanza – Siets Goikoetxea
- Aimar Igoa – Hodei Ulaiar
- Iraide Vergara – Amets Izquierdo
- Enaitz Gonzalez – Xabier Olaiz
- Aiora Agirretxe – June Sanzol
- Oihan Gartzia – Patxi Azpeitia
- Asier Astiz – Peru Urteaga
- Siets Goikoetxea – Amets Izquierdo



Asteartean aurkeztu zuten Binakako Txapelketa, Bilboko Bizkaia pilotalekuan. Bertan jokatu da finala, apirilaren 5ean. ASPE

## Ezkurdia Martijarekin eta Zabaleta Jakarekin

**PILOTA** Binakako Txapelketa gaur hasi eta lau hilabete luze iraungo du. Ezkurdiak eta Martijak Altuna III.-Ladis Galarza izango dituzte aurkari gaur Azkoitian eta Jaka eta Zabaleta Irribarriaren eta Rezustaren kontra ariko dira igandean Bergaran

Zurrumurruak zirenak konfirmatu ziren eta asteartean aurkeztu zituzten Binakakoan ariko diren 8 bikoak: Aspetik Ezkurdi-Martija, Erik Jaka-Zabaleta, Altuna III.a-Ladis Galarza eta Irribarria-Rezusta dira lehiatuko diren bikoteak, eta Baikoetik Olaizola II.-Urrutikoetxea, Bengoetxea VI.-Mariezkurrena II.a, Laso-Albisu eta Artola-Imaz.

Iaz Rezustarekin batera txapeldun izan zen Danel Elezkano ez da ariko. Aspetik azaldu zuten "kirol irizpideengatik" hartu zutela erabakia, eta gaineratu zuten "zalantza asko" izan zitezela bikoteak osatzeko "nahiz eta modalitate guztietan txapeldunak izan, aukeratu beharra dagoelako". Erik Jakaren aldeko apustua egin du Aspek. Baikoko nobeda-

derik aipagarriena Mikel Urrutikoetxea atzera ere atzelari jartzearen erabakia izan zen. Olaizola eta Urruti 2016ko txapeldunak izan ziren, eta atzera ere biko honekin apustua egin nahi du Bilboko promotoreak. Andoni Aretxabaleta eta Mikel Larunbe tokirik gabe geratu dira.

Txapelketari dagokionez, hasieran final-laurdenetako ligax-

ka jokatu da, guztira 14 jardunaldi, otsailaren 25era bitartean. Ligaxkako lehen bi bikoteak zuzenean sailkatuko dira finalerdietarako, eta beste biak play-off edo kanporaketa bidez sailkatuko dira; hau da, 3. eta 6. postuetan dauden bikoien arteko partida eta 4. eta 5. postuetan dauden bikoteen artekoa jokatu dira otsailaren 29an eta martxoaren 1ean, beste bi finalistik erabakitzeko. Hori da aurrez aurreko nobedadea. Ondoren finalerdietako ligaxka jokatu da martxoaren 7tik 22ra, eta azkenik, final handia apirilaren 5ean erabakiko da, Bilboko Bizkaian.

#### Sakandarrak pozik

Berritoren biko sakandar bat izango dugu Binakakoan, baina kasu honetan Ezkurdiak eta Martijak osatutakoa. Pozik zeuden biak. "Oreka handia dago bikoteen artean, eta txapelketa polit bat egitea espero dugu" adierazi zuen Ezkurdiak. Atzean sendo dabilen, lanak ongi egiten dituen eta segurtasuna emango dion Martijaren laguntza izango du aurrelari arbizuarrak. Gaur Altuna eta Ladis dituzte aurkari Azkoitian (22:00, ETB1).

Jose Javier Zabaletak Erik Jaka izango du bidaide. Bikote bikaina osatzen dute; Zabaleta egungo atzelaririk onenetakoa da onena ez bada, eta Erik Jaka errematatzaile bikaina. Igandean Irribarria eta Rezusta dituzte aurkari Bergaran (17:00, ETB1).

## Amaia Jakak Emakume Master Cupeko finalerdia du jokoan

**PILOTA** Naroa Elizalde izango du aurkari bihar, larunbatean, Mañarian, lau t'erdiko finalerdian

Laboral Kutxa Emakume Master Cup Lau T'erdiko pilota txapelketako promozio mailako pilota goxuan ari da lehian Amaia Jaka pilotari ihabardarra. Bihar, larunbata, promozio mailako pilota goxuko finalerdia jokatu du Mañarian, Naroa Elizalde Zubietako pilotariaren aurka. Beste finalerdia Gentzane Aldaik eta Ainhoa Ruiz de Infantek jokatu dute.

Finalerdietara iristeko azaroaren 3an Beran jokatu zuten Laboral Kutxa Emakume Master Cup Lau T'erdiko 3. jardunaldian

Amaia Jakak Uxue Azkonobieta ataundarra gainditu zuen, 18 eta 4. Ikusgarri ibili zen Amaia, partida goitik behera kontrolatu zuen, eta ataundarraren gainetik pasatu zen. Bere aurkariak, Naroa Elizalde, Ane Urkizuri irabazi zion azaroaren 10ean Agurainen jokatu zuten partidaren. Elizalde markagailuan atzetik joan zen ia partida osoan zehar, baina, azken txanpan, aurrea hartu eta 17 eta 18 gailendu zitzaion Urkizuri. Jakaren eta Elizalderen arteko biharko finalerdia oso lehiatua espero da.



Amaia Jaka. EMAKUME MASTER CUP

## PILOTA Gazteen Mailako Lau T'erdiko ordezkaririk gabe

Asteazkenean XXXIII. Nafarroako Gazte Mailako Lau T'erdiko edo Guillermo Mazo Memorialeko final-laurdenak jokatu ziren Lekunberrin. Azpirozi (Irurtzun) 11 eta 18 irabazi zion Iriartek (Larraun), Prim (Paz Ziganda) 18 eta 16 gailendu zitzaion Imazi (Irurtzun) eta Bustince (Irurtzun) 4 tantotan utzi zuen De la Fuente (Ultzama). Beraz, Nafarroako Gazte Mailako Lau T'erdikoan ordezkaririk gabe geratu gara.

Finalerdia asteazkenean jokatu dira, 18:30ean, Lekunberrin, eta Loiarrek (Erreka) Iriarte (Larraun) izango du aurkari eta Primek (Paz Ziganda) De la Fuente (Ultzama). Finala abenduaren 3an jokatu da, Labriten.

# "Txapela lortuta, erronka lehen mailari eustea da"

**GOIZEDER BELTZA IGOA NAFARROAKO 2. MAILAKO AIZKORA TXAPELDUNA**

**AIZKORA** Nafarroako 2. Mailako Aizkora Txapelketa irabazi du etxarriarrak, eta abenduaren 14an Euskal Herriko 3. Mailako Txapelketan lan ona egin nahi du

**Maidar Betelu** ETXARRI ARANATZ

Azaroaren 10ean Nafarroako 2. Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu zen Aldatzen, Goizeder Beltza Igoa etxarriarrak jantzi zuen txapela. Egun, abenduaren 14an Otxandion jokatu den Euskal Herriko 3. Mailako Aizkora Txapelketa dabil prestatzen buru-belarri.

**Nafarroako 2. mailako txapelduna eta, gainera, lehen mailara igotzea. A ze saria...**

Sari doblea bai, gustura.

**Irabaztea espero zenuen?**

Espero, espero... beti joaten zara ahal den hobekiena egitearen intentzioarekin, ilusio horrekin entrenatzen duzu. Sari ona ateratu zen eta beno!

**Zuk 21:54 minutu behar izan zenuen lanak egiteko eta bigarrenak, Xuban Kañamaresek, 4 segundo gehiago. Final oso estua, ezta?**

Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat genituen erdibitzeko. Pare pare joan ginen, eta azkeneko enborrean, kanaerdikoan, bera hasi zen aurretik; nik naukan gutxitik dena eman nuen eta irabaztea lortu nuen.

**Atzetik Patxi Mindegia, Jesus Etxeberria eta Mikel Indakoetxea sailkatu ziren, 2 minutuko aldearekin.**

Alde polita izan zen, baina ni nire lanarekin ez nintzen oso gustura gelditu. Nerbio arazoekin ibiltzen naiz, eta txapelketetan gaizki jartzen naiz, korteekin ezinasmatu... Etxean entrenatzen primeran ibiltzen naiz, baina txapelketetan urduritu egiten naiz, eta finalean ere horrela ibili nintzen. Ongi entrenatuta eta ongi deskantsatuta nengoen eta horrekin ateratu nuen txapela, baina egunean bertan egindako merituekin ez. Baina 2. Mailako Nafarroako txapelduna naiz eta horrekin gelditzen naiz.

**Nerbioena nola gaintzen da?**

Ba ez dakit, nire lagun batek dio hori ez dela Eroskin saltzen (kar, kar...). Ni txikitzen ere horrela nintzen, eta horrela segitzen dut.



Goizeder Beltza Igoa, 2. mailako txapelarekin, bere bi haurrekin. UTZITAKOA

## "EUSKAL HERRIKO 3. MAILAKO FINALEAN DISFRUTATU ETA LAN ON BAT EGIN NAHIKO NUKE. ILUSIO HORI DUT"

**Uste duzu arazo horrengatik akaso ez duzula lehenago aurrera egin?**

Bai. Finaletan normalean lotuta egoten naiz. Ez naiz bakarria, beste batzuei ere gertatzen zaie. Eta gero, badaude beste batzuk plazan etxean baino gehiago egiten dutenak. Entrenatzen ikusten nautenean esaten didate etxean gehiago mozten dudala. Baina balio duena plazakoa da.

**Noiz hasi zinen aizkora?**

Berandu, 30 urterekin, Sakanako Aizkora Eskolan, Axio Floresekin, probatzeagatik. Eta harrek animatuta segitu nuen. Aspaldi nire kabuz entrenatzen dut, bordan, aitaren laguntzarekin. Sakanako Aizkora Eskolako irakasle ere izan nintzen tarte batean, baina lana, familia... utzi behar izan nuen.

**Noiz ateratu zinen plazara?**

33-34 urterekin. Bi txapela ditut, Nafarroako 2. Mailakoa eta 3.

Mailakoa. Eta gero torneoren bat edo beste.

**Gaur zenbat entrenatzen duzu? Bikain tailerreko mekanikari lanak ez dizu asko utziko, ez?**

Tailerra ere gurea da eta azkeneko, badakizu, lana ez da bukatzen. Ni normalean aizkora entrenatzen hasterako arratsaldeko zortziak dira. Egurrak eguerdiko edo arratsaldeko tarte batean prestatzen ditut... Nafarroako Txapelketa honetarako astean hiru aldiz ibili naiz entrenatzen. Bi entrenamendu fuerte, beste bat arinagoa, gero fondoa egiteko mendian bueltaren bat eman... horrela.

**Lehenengo mailako proba batek ze alde du 2. mailako batekin?**

1. Mailako Nafarroako kanporaketak izango dira 2. Mailako Nafarroako finala bezala: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat, eta 1. Mailako finalean bikoiztu egingo da lana.

**Hortaz, hurrengo urtean entrenamenduak aldatu beharko dituzu...**

Nafarroako 1. Mailan 10 aizkolari egongo gara; lehendabiziko bostak finalerako sailkatuko dira baina azkeneko biak 2. Mailara jaitsiko dira. Bakoitzak badaki non dagoen, eta esatea helburua

finalera sartzeko delako gehiegizkoa izango zen niretzat. Nire helburua da 2. Mailara ez jaistea. Aurtengo Nafarroako 1. Mailako finalean txapelduna Iker Vicente izan zen, gero Juanjo Lopez, Jon Rekondo... Nafarroan horiek dira onenak, eta beraiekin aritu beharko dut. Mailari eustea ere bada nahikoa lan.

**Nafarroako 2. Mailako txapela buruan, ongi sentituko zinen...**

Kostatu zait, ez pentsa, eh? Oraindik ez dut txapela ospatu... Askotan igual ongi moztu duzu eta irabazten dizute, eta konforme gelditzen zara. Baina finalean ez nintzen gustura egon, dezepzioa hartu nuen.

**Pentsa hobetzeko alde baduzula...**

Bai, margena beti dago, eta esperantza hori dut. Abenduaren 14an Euskal Herriko 3. Mailako Aizkorako finala jokatu dut Otxandion, eta ilusio horrekin nago, ea ongi mozten dudan eta denbora ona egiten dudana. Sei finalista gaude, ni bakarria Sakanakoa. Ez dut helbururik jartzten, nahi nuke disfrutatu eta lan on bat egin. Etxean egiten dudana egiten badut, nahiko.

**Noiz hasiko zara lehen mailarako gogorrago entrenatzen?**

Urte berriarekin batera. Maiatzerako nahiko ongi egoten naiz, ez topera baina bai ibilita. Erakustaldietara ongi joan behar da, gutxienik itxuran ibiltzeko. **Sakanako Aizkora eskolako gazteak aizkora trebatzeko egiten duen lana nola baloratzen duzu?**

Ni bezala asko hasi ziren bertan: Resano, Jauregi, Corchero... Nik uste dut aizkora hasteko ia modu bakarria dela Sakanako Aizkora Eskola, bestela asko ez ginateke hasiko. Meritu handia dute irakasleek. Floren Nazabal eta aita hasi ziren, gero Jose Inazio Flores ibili zen, hark uztean Juanito Erdozia sartu zen, gero ni aritu nintzen eta orain Juanito, Miguel Angel eta Juanjo Erdozia dabilta. Lan asko egiten dute eta ez da nahikoa baloratzen egiten duten guztia. Eta berdin Sakanako Harrijasotze Eskolak egiten duena, Mikel Lasarte buru dela. Plazan eurekin elkartzen gara. Sakanako herri kirol eguna egiten dugu, erakustaldiren bat... Gurea jende gutxiko kirola da eta horrengatik denak ezagutzen gara. Azkenean lagun koardila bat gara. Lehiaketa lehiaketa da, baina lehiakortasuna bertan gelditzen da; gero lagunak gara guztiak.



Emakumeak saskibaloian. ARTXIBOA

## Emakumeei kirolak probatzeko gonbita

**KIROLDEGIA** Mank-ek kirol ezberdinak probatzeko ikastaroa antolatu du emakumeendako

Gaur dagoen kirol eskaintza aparta da. Baina, sarritan, emakume gazte eta helduei kostatu egiten zaie kirolekin hastea, kirol eskola asko adin txikikoendako bideratuak daudelako. Muga hori gainditu nahian, Sakanako Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuaren eta Altsasuko Udaren laguntzarekin, "emakumeei zuzendutako kirolekin hasteko ikastaroa" antolatu du. Helburua da kirol desberdinen oinarriko ezagutza lortzea eta kirol ezberdinak praktikatzeko.

Horrela, ilbeltzetik maiatzeraraino bitarteko larunbatetan, goizeko 11:00etatik 12:30era, eta Maalen Beraza Etxarri monitorearen laguntzarekin, hainbat kirolekin probatzeko aukera izango dute ikastaroan izena ematen duten emakumeek: volley ball, saskibaloia, eskubaloia, igeriketawaterpolo, tenis, irristaketa-hockey, badminton... Kirol bakoitzeko oinarriko ezagutza lortzea eta praktikatzeko da asmoa. Ikastaroa Altsasun egiten da.

**Abenduaren 10 arte**

2003an edo lehenago jaiotako emakumeek eman dezakete izena, abenduaren 10a baino lehen, Sakanako Mankomunitatean (kirolak@sakana-mank.eus, 948 464 866). Prezioa: 40 euro.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO  
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 22

### ETXARRI ARANATZ

**Autodefentsa feminista. Neska-  
emakumeendako ahalduzko  
tailerra EMAGINen eskutik.**  
17:00etatik 20:30era, kultur  
etxean.

**LAKUNTZA Zabalarde elkarteak  
antolatutako proiektzioa.**  
19:00etan, kultur etxean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ  
Euskal presoak Euskal Herrira  
kontzentrazioak.**  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasukoak aske  
kontzentrazioa.**  
20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU Pintxopotea Isunen  
aurkako taldeak antolatuta.**  
20:30etik aurrera, gaztetxean.

**ALTSASU Gazte agenda. Gau  
emanaldia.**  
21:00etatik aurrera, Intxostiapunta  
gazte txokoan.

**ETXARRI ARANATZ *Velma eta***



**Cris. Kokoteraino** antzezlanaren  
emanaldia euskaraz.  
22:00etan, kultur etxean.

**OLAZTI *Velma y Cris. ¡Hasta el  
moño!*** antzezlanaren emanaldia  
gaztelaniaz.  
22:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU *Los Rodriguez y el  
Mas Alla*** filmaren emanaldia.  
22:00etan, lortia kultur gunean.

## LARUNBATA 23

**ALTSASU Gazte agenda.  
Emakumeenganako  
indarkeriaren aurkako eguna.**  
*Mi novio me controla... lo  
normal* lanire Estebanen  
hitzaldia.  
19:30etan, Intxostiapunta gazte  
txokoan.

**IRURTZUN *Mustang*** filmaren  
emanaldia eta Maria Castejon  
Leorzarekin zine foruma.  
19:00etan, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ Amnistia  
eguna. Manifestazioa:  
Borrokatzea zilegi delako,  
Amnista osoa. Nafarroako AEM-  
ek antolatuta.**  
19:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasu Memoria  
taldearen 3. fasearen  
aurkezpena (1993-gaur egun  
arte).**  
19:00etan, lortia kultur gunean.

**ARRUAZU Puro Relajo** taldearen  
kontzertua.  
20:30etan, ostatuan.

## IGANDEA 24

**IRURTZUN Bi** gazteluen martxa.

**Irurtzun-Aixita-Etxarren-  
Orarregi-Urritzola** ibilbidea  
eginen dute Iratxo elkartearen  
eta Arakil kulturaren eskutik.  
08:30etan, plazan.

**ALTSASU San Lorenzo** ermitara  
50 km-tako ibilbidea eginen du  
Barranka BTT taldeak.  
08:30etan, Zumalakarregi plazan.

**LAKUNTZA Bingoa.**  
17:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Gazte agenda.  
Emakumeenganako  
indarkeriaren aurkako eguna.**  
**Abesti moreak.**  
18:00etan, Intxostiapunta gazte  
txokoan.

**ALTSASU *Santi Osagai*** filmaren  
emanaldia.  
18:30etan, gaztetxean.

**ALTSASU Altsasu** auzia.  
*Hiru urteko labirintoa Aske!*  
kontzertua: Oreak TX, Jon Maia  
eta Hodei Barroso, Tximeleta,  
Aiora Erreterria, Aurora Beltran,  
Altsasuko Dantzariak eta  
Lluís Llach musikarien parte  
hartzearekin.  
19:00etan, Burunda frontoian.

**ALTSASU *Los Rodriguez y el  
Mas Alla*** filmaren emanaldia.  
19:30etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU *El amor menos  
esperado*** zineforum filmaren  
emanaldia.  
19:40etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Euskal presoak Euskal  
Herrira** kontzentrazioa.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 25

**ALTSASU Pentsio duinen alde.**  
Sakanako Pentsiodunen eta  
Adinduen Koordinakundea.  
12:00etan, plazan.

**ALTSASU Gazte agenda.  
Emakumeenganako  
indarkeriaren aurkako eguna.**  
**Abesti moreak.**

**ALTSASU Santiago  
Sierra** artistaren Preso  
Politikoak Espainia  
Garaikidean erakusketa.  
Azaroaren 30era arte.  
Astelehenetik ostiralera  
18:30etik 21:00etara,  
larunbatetan emanaldia  
baino ordu bat lehenago  
eta igandeta 19:00etatik  
21:00etara, lortia kultur  
guneko erakusketa gelan.

**ETXARRI ARANATZ  
Gogoan** hartzeko izenak  
erakusketa.  
Azaroaren 24ra arte.  
Kultur etxean.

**ALTSASU II. Mundu  
Gerrako** Mauthauseko  
kontzentrazio-  
esparruaren argazki  
originalen erakusketa.  
Abenduaren 15era arte.  
Kukua tabernan.

**IRURTZUN *Baratze  
kritikoa*** erakusketa.  
Azaroaren 22tik 25era.  
Astelehenetik ostiralera  
14:30etik 20:00etara,  
liburutegian.

**ETXARRI ARANATZ  
*Baratze kritikoa*** erakusketa.  
Azaroaren 28 eta 29.  
Plazako estalopean.

18:00etan, Intxostiapunta gazte  
txokoan.

**ETXARRI ARANATZ Santa Zezilia**  
eguneko udal musika eskolako  
ikasleen kontzertua.  
19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU AGAren joste** tailerra.  
19:00etan, gaztetxearen  
sutondoan.

## ASTEARTEA 26

**OLAZTI** Izaskun Mujika ipuin  
kantalariaren *Gorputz osoko  
ipuinak*.  
17:00etan, ludotekan.

**ETXARRI ARANATZ Jaione  
Urtasun** ipuin kantolariaren  
*Pontxarekin milaka ipuin*.  
17:30etan, liburutegian.

**ALTSASU Autokontsumo  
fotovoltaikoari buruzko  
tailerrak.**  
18:30etan, Gure Etxea eraikinean.

## ASTEAZKENA 27

**ALTSASU Kafe** konpondu.  
17:30etik 19:30era, Gure Etxea  
eraikinaren beheko solairuan.

**ARBIZU *Baratze kritikoa***  
erakusketa.  
16:00etatik 20:00etara,  
udaletxean.

**ARBIZU *Nik sinesten dizut***  
liburuaren aurkezpena Samara  
Velte idazlearekin.  
19:00etan, udaletxean.

**ALTSASU AGAren** asanblada.  
19:30etan, gaztetxean.


## OSTEGUNA 28

**ARBIZU KoopFabrika.** Sakanan  
ekintzailatza sozial eta  
kooperatiboa sustatzeko  
programa. Itxiera saioa.  
16:00etatik 20:00etara,  
Utzuganen.

**ALTSASU Autokontsumo  
fotovoltaikoari buruzko** tailerrak.  
18:30etan, kultur etxean.

**ALTSASU *Los Rodriguez y el  
Mas Alla*** gaurkotasunezko  
filmaren emanaldia.  
19:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU *El amor menos  
esperado*** zineforum-a.  
19:00etan, lortia kultur gunean.




**DEKOVEN  
NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com  
www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU  
Tel./Faxo: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA




**Vicente Zufiaurre Pozueta**  
'Kalmante'

"Poztasuna zabaltzen ez zenuen parekorik, horren lekuko izan garenok beti izango zaitugu gure bihotzetan"

**Etxekoak**  
Altsasu

OROIGARRIA




**Odei Iturrioz Fernandez**  
**Rexu Iturrioz Gastesi**

Bilatzen zaituztegu eta ez zaudete, ta ezin diogu ezinegon honi eutsi, argia ilun, bizia samin, eguzki izpiak hain dira urri!

**Maite zaituztegu**

**Itziar eta Intza**  
Telaia baserria (Urdiain)




**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU**      **ETXARRI ARANATZ**  
Santa Cruz, 6      Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

HERIOTZAK

- **Angeles Larraza Larraza**, azaroaren 17an Dorraon
- **Vicente Zufiaurre Pozueta**, azaroaren 18an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Zure iragarri laburra gure

**Merkatu txikian**

948 56 42 75  
[iragarri@guaixe.eus](mailto:iragarri@guaixe.eus)  
[www.guaixe.eus/iragarriak](http://www.guaixe.eus/iragarriak)



IRAGARKI SAILKATUAK

**NEGOZIOAK**

**ERRENTAN HARTU**  
**Aizarozko ostatua hartzeko:** Basaburuako Udalak Aizarozko ostatua errentan emateko deialdia egin du. Interesa dutenek 948 50 30 35 telefonora hots egin dezakete.

**LAN ESKAINTZA**  
**Etzarriko taberna batean, asteburutan lan egiteko pertsona behar da. Esperientzia eta lan egiteko gogoekin.** Deitu 666 224 704 tñora.

**Cederna Garalur elkar-teak tokiko garapen agente bat kontratatu nahi du Bortziriki, Malerreka eta Bertizarran lan egiteko, eszedentzia bat dela eta. Eskatzen da:** Unibertsitate mailako titulazioa; euskalduna izatea, egiaztatu daitekeen C1 mailarekin (edo titulu baliokidearekin); B1 gidabaimena eta autoa. Aurkeztu beharreko dokumentazioa [info@cederna.es](mailto:info@cederna.es) helbidera bidali azaroaren 29an 14:00ak baino lehen. Informazio gehiago: [www.cederna.eu/eus](http://www.cederna.eu/eus) web orria edo 948 20 66 97 telefono zenbakia

**OPARI**  
**Txakur kumea oparitzen da.** Interesatuak deitu 667 266 746 tñora.

**GALDUTAKOAK**  
**Kotxeko giltza galdu dut Arbizu eta Arruazu bitarteko partzelarian.** Aurkitzen baduzu, mesedez deitu 699 325 040.

**OHARRAK**  
**Sei elkar-teak boluntarioak:** Sei elkar-teak bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin astean bi ordu egoteko 21 urtetik gorako boluntarioak behar ditu: asteartean Iturmen-din eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo [gestion@asociacionsei.org](mailto:gestion@asociacionsei.org) e-postara idatzi dezake. [www.asociacionsei.org](http://www.asociacionsei.org), informazio guztia dago.

**Etzarriko irakurle taldea:** abenduaren 12an, ostegunetan, 19:00etan Etzarri Aranazko liburategian elkartuko dira eta "Egunero hasten delako" liburuz arituko dira. Gonbidatuta zaude.

**Nafarroa Oinez 2019ri laguntza eman nahi izanez gero egin zure ekarpena ondorengo kontu korronteetan:** Laboral Kutxa ES39 3035 0102 3810 2005 4552 / Rural Kutxa ES58 3008 0003 0539 0183 6324 / Caixabank ES52 2100 3695 1322 1015 8880. Errenta aitopenerako zure ekarpenaren agiria bidaliko dizute etxera.

**Tuterako ikastolarekin elkartasun afaria Bakai-kun:** Azaroaren 9an elkar-tean, 15 euroren truke. Elkar-tean eta estankotan dauden zerrendetan izena eman behar da.

**AHT-ko lanetara mendi martxa:** Mugitu! Mugimenduak azaroaren 23 eta 24ean Marcilla eta Tafalla artean AHTaren aurkako mendi martxa bat antolatuta du. Helburua tarte horretako AHTaren proiektua ezagutzeko eta abiatu dituzten lanak bertatik bertara ikustea da. Bestalde, zonaldeko oposizioarekiko harremanak estutzea eta marbxak zeharkatuko dituen herrietan informazioa zabaltzea da. Argibide gehiago: <http://mugitu.blogspot.com/>

**Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntze-txearen eraikina zahar-berritzeko proiektuan lagundu nahi duenak** ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitopenera egitean zati bat bueltatuko diote.

**Sakana Trenaren alde AHTrik Ez plataformak** asteartero, 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakatu egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

**Bidelagun izan nahi?** Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizkatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AE-Kren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia.


[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

☎ 948 19 70 70  
✉ @Grupolrache  
f Grupolrache  
🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

“Betidanik”



Argazki Rallyaren Altsasuko ferietako argazkirik onena. ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK

## Bost gai, hogeita hamabost argazki eta bost sari

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak Altsasuko ferietako Argazki Rallyaren sari banaketa egin zuen larunbatean

### ALTSASU

Zaiako Jose Luis Rodriguezek irabazi zuen Altsasuko ferietako Argazki Rallyaren bildumarik onenaren saria. Altsasuko ferietako argazki hoberenaren saria Fernando Moreno altsasuarrak irabazi zuen, hirugarren bildumarik onenaren sariarekin batera. Bigarren bildumarik onena Jose Antonio Fernandez gipuzkoarrarena izan zen. Gainera, sari berri bat banatu zuten larunbatean Altsasuko ferietako Argazki Rallyaren barruan: altsasuar onenaren saria eta Josu Dorronosorako izan zen. Haurren kategorian Malen Sanz izan zen lehenengo irabazlea eta Aiala Dorronosoro bigarrena. 32 argazkilarik parte hartu zuten aurtengo argazki rallyan. Sari banaketa larunbatean izan zen Iortia kultur gunean.

### Argazkilarik amateurrak

Fernando Morenori argazkilaritza txikitatik gustatzen zaio, eta orain ohikoa da Sakanako hainbat ekitaldietan kamera eskuan duela ikustea. Bosgarren urtez aurkeztu zen Argazki Rallya. Aurrekoetan "penarekin" ateratzen zen sari banaketa ekitalditik, baina aurten sorpresa hartu du: Altsasuko ferietako argazkirik onena berarena izan zen.

"Kasualitatez" egin zuen argazkia Morenok. "Dagoeneko gai guztiak eginak nituen, eta bakarra gelditzen zitzaidan: ferietako argazkia". Argazkilariek Altsasuko feriako egunean bost gai islatu behar dituzte argazkien

bidez. Aurten Altsasu, Islak eta Itzalak, Abiadura eta Udazkena islatu behar zuten urtero errepikatzen den Altsasuko ferietako argazkiarekin batera, eta "kontrolako" argazkia, hau da, norberak bere buruari egin behar dion argazkia.

Urtero gaiak aldatzen diren arren, Altsasuko ferietako argazkia errepikatzen denez "aurreko urtetako argazki irabazleak begiratzen dituzu ideiak hartzeko". Beraz, Morenok bazekien animalia baten argazkia nahi zuela. "Zaldiengana joan nintzen, baina ezin nuen pasa. Zuhurra izatea gustatzen zait". Hortaz, ganadu azokara joan zen eta bertan zegoen "behi gorri" bati argazkia egin zion. "Ez nintzen argazkiarekin batera gustura gelditu. Oso txarra zen". Baina argazki rallyaren epaileek zerbait ikusi zuten argazki horretan, izan ere, saria eraman zuen Morenok.

Egun bizia izan ohi da Altsasuko ferietako eguna argazki rallyan parte hartzen duten argazkilarientzako. "Dotore aterantz nintzen etxetik, baina kotxean aldatzeko arropa eramaten nuen". Hortaz, gaia udazkena zela jakin zuenean, arropa aldatu eta basora joan zen. "Pentsatu behar duzu nola islatu dezakezun gai hori. Aurten nahiko erraza izan da. Baina poztasuna esaten dutenean... nola islatu poztasuna argazki on batean?".

Rallyan parte hartzen duten argazkilariek elkar ezagutzen dute, eta amateurrak dira.

# Hirugarren urtemugaren elkartasun emanaldia

Altsasu auzia. Hiru urteko labirintoa jardunaldiekin amaitzeko kontzertua antolatu du Altsasukoak Aske herri plataformak. Musika, dantza eta hitza elkartuko dira goi mailako artisten emanaldian. Igandean, 19:00etan, izanen da, Burunda frontoian

### ALTSASU

Altsasu auzia. Hiru urteko labirintoa jardunaldiak egin ditu Altsasukoak Aske herri plataformak azaroan zehar Altsasuko auziagatik zigortutako gazteen atxilotetak duela hirurteko azaroan izan zirela salatuz, gogoan hartuz, eta plataformak egiten duen ekimen guztietan bezala, familiei elkartasuna adierazteko. *Hilabete bereziari amaiera emateko Aske!* kontzertua antolatu dute etzizako, igandeko. Burunda frontoian izanen da, 19:00etan, eta goi mailako hainbat diziplinetako artistak arituko dira, tartean Lluís Llach abeslari kataluniarra.

"Adin tarte eta estilo desberdinetako eskaintza izan dugu". Altsasu auzia. Hiru urteko labirintoa jardunaldiak azaroaren hasieran hasi ziren gazteei zuzendutako kontzertu-jaialdi batekin. Hortaz, reggae eta ska musikak izan ziren nagusi. Hirugarren urtemuga "tristearekin" amaitzeko "beste ekitaldi mota bat" antolatu dute igandeko.

### Musika, dantza eta hitza

Oreka TX taldea, Jon Maia eta Hodei Barroso, Tximeleta taldea, Aiora Erreterria, Aurora Beltran, Altsasuko dantzariak eta Lluís Llach abeslaria izanen dira Aske! kontzertuaren protagonistak. Gainera, Miren Amuriza eta Dani Martirena izanen dira gidariak. "Hala ere, ez dira aurkezle soilak. Istorio bat kontatuko dute, kontzertua osoa batzen dutena". Hortaz, hari batek osotasuna emanen dio kontzertuari.

Artista anitzak eta desberdinak bilatu dituzte kontzertu berezi honetarako. Oreka TX txalaparta talde ba da, "oso ospetsua". Txalapartak "indarra transmititzen" du. Jon Maia eta Hodei Barroso bertsolariek emanaldi "berritzailea" eskainiko dute, izan ere, Etxeberriak azaldu duenez Maiak bertsoak botako



Altsasu auzia. Hiru urteko labirintoa jardunaldien aurkezpena. ARTXIBOA

## ARTISTA "ANITZAK, DESBERDINAK ETA DIZIPLINA EZBERDINETAKOAK" EGONGO DIRA

ditu eta Barrosok rapeatuko ditu. "Bien arteko jolas bat izanen da. Berezia izanen da". Hortaz, berritzailea ere izanen da igandean eskainiko duten kontzertua.

Altsasukoak Aske herri plataformak antolatu dituen ekitaldi guztietan genero ikuspegia ere kontuan izan dute, eta parte hartzaileen artean emakumezkoen eta gizonezkoen kopuru berdina edo antzekoa egotea saiatu direla azaldu du plataformako kideak. Beraz, kontzertuan Aurora Beltran nafar abeslari ospetsuak emanaldia eskainiko du eta Zea Mays taldeko Aiora Erreterriak ere kontzertuan parte hartuko du.

Adierazteko modu desberdinak bilatu dituzte kontzertu honetarako, eta horregatik dantza ere egon behar zela esan du Etxeberriak. Altsasuko dantzariak koreografia bat egingo dute. Hortaz,

Iñaki Agirre eukal dantzako irakaslearen hainbat ikasle eta Irantzu Gonzalez dantza eskolaren beste hainbatek koreografia bat prestatu dute elkarlanean.

"Tximeleta taldea askotan aritu da gurekin, eta kontzertu honetan ere elkarrekin Altsasu aurrera abesteko aukera izango dugu". Sakanako "esentzia" ere islatuta egon behar zuela azaldu du Etxeberriak.

### Kataluniatik Altsasura

Lluís Llach agertokietatik despiditu zen, musika alde batera utzi zuen, eta "ahalegina" egingo du igandean Altsasuko Burunda frontoian emanaldia egiteko. Llach-en artista ezagunaren presentziarekin "Kataluniari esker eman nahi diogu, eta, bide batez, elkartasuna adierazi nahi diegu ere".

Letrak ere garrantzitsuak izango dira kontzertuan, beraz, Miren Amuriza eta Dani Martirena idazleek istorioa bat kontatuko dute kontzertuari osotasuna emango diona. Etxeberriak adierazi duenez, kultura aldarrikatzeko eta borrokatzeko beste bide bat da.

# Zuzenekoetatik diskoa aurkeztera

Beietz! musika talde arbizuarrak Erraietatik diskoa kaleratu du. Hamalau abestik osatzen dute diskoa, taldearen "zeltik parranda" soinu bereizgarriekin. Hala ere, reggaearekin eta skarekin esperimentatu dute ere lehenengo diskoa

## ARBIZU

Beietz! talde gaztea da. Duela bi urte inguru sortu zen, eta 2018ko ekainean egin zuten publikoaren aurreko mustutze ofiziala. Hiru abesti kaleratu zituzten orduan, eta ondoren beste hamaika sortu dituzte Erraietatik taldearen lehenengo diskoan biltzeko. "Oso urte bizia daramagu. Diskoa grabatzeko prozesua aspaldi hasi zen". Taldearen hasieretatik diskoaren prozesuan ari direla azaldu du Hiart Leitzak taldearen abeslariak. "Sentitu dugu leherketa bat bezala, garrasi bat bezala". Erraietatik atera zaien oihu bat da Beietz! taldearen diskoa. Portadan ere oihukatzen ari den emakume bat agertzen da.

Beietz!-en "hasierako izpiritu" hori mantentzen dela esan du Leitzak: "Instrumentuak ditugunak izanik, kutsu zeltiar hori ematen dio". Zeltik parranda deitu zioten talde arbizuarraren estiloari, folk musika baina rock-arekin eta beste hainbat doinu modernoagoekin uztartzen dena. Gainera, diskoan "reggae eta ska estiloei" esperimentatzeko aukera izan dute.

Hamalau abestik osatzen dute Erraietatik diskoa. "Azken bi urte hauetan sortze prozesu batean egon gara". Kantuak egiten zituzten, kantu horiei letrak jartzen zieten eta, ondoren, zuzenekoetan probatzen zituzten. "Zuzenekoetan jo ondoren abesti batzuk alde batera utzi ditugu ez zitzaizkigulako egokiak iruditzen diskoan sartzeko". Hortaz, taldekideei abesti hobereak iruditu zaizkien sartu dituzte diskoan. Bi urtetan hainbat zuzeneko eman dituzte, diskoa grabatu dute eta lehenengo bideoklipa ere mustu dute. "Aurretik musika taldeen funtzionamendua ezagutzen dugu, badakigu nora jo eta nola egin gauzak". Besteak beste, Skalariak taldeko kideak izan ziren taldekideetako batzuk.



Beietz! taldea bideokliparen une batean. BEIETZ!

## "TALDEA SORTU GENUENETIK DISKOA EGITEKO SORTZE PROZESU BATEAN ARITU GARA"

"Pixka bat denetarik" jorrazten dituzte abestiek. "Nahi genuena da gauzak polit esatea. Hitzak bilatu ditugu. Hitzen edertasunari eman diogu garrantzia". Hortaz, abesti batzuen mezua "zuzenak" diren arren, beste batzuk "pentsarazteko eta iradokitze" aukera ematen dute.

### Gaurkotasunezko gaiak

Haien izenean da kaleratu duten lehenengo abestia eta bideoklipa. Memoria historikoaren inguruan hitz egiten du abestiak, eta bideoklipak ere Espainiako gerra zibilaren istorioa kontatzen du. "Zine kutsua badu". Ama bat eramaten dute eta haurrak leihotik begira gelditzen dira. "Ondoren, geroko belaunaldiak ateratzen dira leihotik begira". Sakanako memoria historikoa landu dute abesti honetan.

Erraietatik abestiarekin euskal musikari omenalditoxa egin nahi izan dio Beietz! taldeak: "Gure bizitzaren soinu bandarekin abesti bat osatu dugu". Gosea abestian reggae ukituak sartu dituzte eta errefuxiatuen gaiari buruz hitz egiten dute arbizuarrak. Berriz diskoaren balada bakarra Altsasuko auziagatik espetxeratutako gazteen familiei eskaini diote eta galderak beharrezkoak direla planteatzen dute, Galderak abestiarekin.

Iruñeko Zentral-en egin zuten diskoaren aurkezpen kontzertua azaroaren 9an. "Oso ongi joan zen, oso pozik atera ginen". Talde gaztea zenez, "ez genekien jendeak nola erantzun zuen. Hasierako jendearen aurpegiek hauek zer ari diren egiten esaten zuten, baina gero animatu ziren eta aurpegiak aldatu ziren. Kontentzitu naute esaten zuten".

CD formatuan eta USBan salduko dituzte diskoak, baina garrantzitsuena "abestiak entzutea" dela esan du Leitzak. Sakanan hainbat saltokitan jarri dituzte: Altsasuko Arkatz liburudendan eta Arbizuko kanpinean salgai daude. Sare sozialetan oso aktiboa da Beietz! taldea.



BAZTERRETIK

EDURNE LARRAZA

## 2. ekarpena: ateak ireki



Kaixo! Gutxi batzuk adierazi didate aurreko buru-haustearekiko interesa, baina ekarpen batetik bestera denbora asko pasatzen da. Horregatik, oraingoan erantzuna bakarrik emango dut eta hurrengorako beste metodoren bat pentsatuko dut.

Ea ba. Ongipasa eskolako pasabidean 5 ate daude. Ikasleek ate guztiak ireki

behar dituzte. Hori bai, ate irekita egonez gero itxi eta hurrengora joan behar dute eta itxita egonez gero, ireki eta gela barruan itxoin behar dute.

### Zenbatgarren ikasleari dagokio ate guztiak irekitzea?

Ate bakoitza digitu batez irudikatzen badugu 0 balioa emango diezaiokegu itxita dagoen ateari eta 1 balioa irekita dagoen ateari.

## Gaur Santa Zezilia eguna da, musikarien eguna

Musikarien zaindaria ospatzeko Sakanako musika taldeak kalera aterako dira gaur eta bihar

### SAKANA

Altsasuko musika eta dantza eskolako ikasleak izan ziren lehenengoak Santa Zezilia eguna ospatzen. Astelehenean ospatu zuten eta Altsasuko kaleetan zehar ibili ziren musikarekin herria alaitzen. Gaur, azaroak 22, ospatzen da musikarien zaindariaren eguna, eta horregatik hainbat talde kalera aterako dira.

Erkudengo Ama abesbatza, urtero bezala, Altsasutik aterako da kantuan. Hiru emanaldi egingen dituzte, Iortziako plazan lehenengo, Zumalakarregi pla-

zan ondoren eta Foru plazan azkena. 19:30ean aterako dira.

Altsasun ere udal txistulariak aterako dira musikarien eguna ospatzera. 20:00etan jarri dute hitzordua. Ondoren, afaltzera joango dira. Burundartxistulariak taldea ere kalera aterako da.

Haize Berriak-ek modu berezian ospatzen du Santa Zezilia. Igan-dean, etzi, Sakanatik bira txiki bat egingo dute eta Etxarrin eta Altsasun banda kide berrien etxeetara joango dira ongi etorria ematera. 10:00etan Egiarretatik hasiko dira.



Pello Reparaz musikaria Zetak-en aurkezpenean. JAIME VENEGAS

# "Zetak-ek gauzak beste modu batera egin nahi ditu"

## PELLO REPARAZ ZETAK

Musika elektronikoa oinarri duen proiektua aurkeztu zuen larunbatean, Oialume Biltokian, Pello Reparazek. Musika talde bat baino zerbaite gehiago bada Zetak

### Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Zetak sortu zenetik misterioa eta sekretismoa izan dira nagusi. Martxoan jakinarazi zen Pello Reparaz arbizuarrak musika proiektu berri batean lanean ari zela. Eta ekaina aldera lehenengo abestiaren bideoklipa kalera zuen: *Errepidean*. Sare sozialetatik proiektuaren zertzeladak ematen joan dira. Larunbatean Zetak-en misterio ia guztiak argitu ziren Hernani eta Astigarra artean dagoen Oialume Biltokian egingako aurkezpenean.

### Zer da Zetak?

Zetak diziplina anitzetako proiektu artistiko bat bezala ulertzen dugu, musika talde bat bezala baino. Musika hor dago ardatz gisa, baina benetan transmititu nahi dugun hori transmititzeko

**"NIK BETI ALDAKETA ALDARRIKATU DUT, ETA ALDAKETA DRASTIKOAGOA EGITEKO UNEA ZEN "**

arlo askotan egin behar dugula lan uste dugu.

### Zertan oinarritu zara?

Nik beti aldaketa aldarrikatu dut. Musikaren barruan aldaketak askotan aldarrikatuko ditut. Vendettan diskoak disko aldaketa nabarmenak egiten joan nintzen, eta momentu batean sentitu nuen aldaketa drastikoago baten momentua zela. Ohi baino azkarrago aldatzen ari nintzela konturatu nintzen, eta horrek aldaketa handiago bat behar zuen. Hortik dator Zetak. Orduan, al-

daketa aldarrikatzeari lotuta eta ezberdin izateari lotuta, Zetak-en sormen intentzioa sortu genuen. Zetak-ek gauzak beste modu batera egin nahi ditu. Eta horretan ari gara.

### Transmititzeko modu berri bat.

Gizartea asko aldatu da, eta ni ere, noski. Gaur egun, musika eta musikaren industriak beste forma bat du. Garai batez musikaria musikari soila zen, gaur egun, musikaria community manager izan behar da, irudia zaindu behar du... Transmititu behar duena musikaren bidez transmititzeaz gain, bestelako arlo batzuekin ere transmititu behar du.

### Proiektu berritzailea dela esaten dute.

Ez dugu guk esan. Zorionez jendea ari da hitz hori erabiltzen eta harrotasun handia da. Ez gara Euskal Herriko lehen musika elektronikoko taldea, inolaz ere, baina estiloa kontuan hartuta eta sormen intentzio hori kontutan hartuta, ukitu dugu hor zegoen teklaxo bat.

### Eta zergatik musika elektronikoa?

Musika estilo desberdinak entzun ditut beti. Vendettaren azken bi diskoetan, baina bereziki nik ekoiztutako azken horretan, asko sumatzen da musika elektronikoa presentzia, eta Zetak estiloari dagokionez, armairutik ateratzeko prozesu bat bezala ulertzen dut. Gogo asko nuen elektronika konplexurik gabe jorratzeko.

### Elektronikako talde gehiago izan dira, baina ez dute oihartzun handirik izan.

### Garai egokienarekin bat egin duzu?

Elektronika beti hor izan da. Musikaren industria globalizatuaren influentzia ikaragarria izan da. Modu batera edo bester gurera ekarri dugu. Guk bestelako buelta bat eman diogu soinu moderno honi: txalaparta erabili dugu, euskararekin bat datozen soinu identitate bat garatu dugu, eta, noski, euskaraz abesten dugu. Hori da, nire iritziz, globalizazioa geure alde bilatzeko aukera oso on bat. Gero eta globalizatuago den mundu batean artistok behar handiagoa dugu ezberdingarria den elementu bat

**"ZETAK-EK EZ DIO ERANTZUTEN MUSIKA ELEKTRONIKOAREN PRINTZIBIOEI"**

sortzeko edo aurkitzeko. Euskaldunok, zorionez, euskara dugu.

### Letrek garrantzia handia dute.

Bai. Zetak-ek ez du erantzuten aspekturik mainstreamementan musika elektronikoa erantzuten dion printzipioei. Zetak Euskal Herrian jaio da, eta Euskal Herriak badauka hona iritsi arteko ibilbide luze bat. Askotan erabili izan da musika zerbaite transmititzeko. Forma eta itxura asko aldatu da eta asko aldatu du Zetak-ek, baina esentzia hori da.

### Baina sare sozialetan erdarabiltzen duzue. Euskal Herriatik kanpo badu bere publikoa?

Gai honen inguruan askotxo galdetzen didate. Sare sozialetan erdaraz aritzen gara. Horrekin jokutzen ari gara, eta nahita egiten dugu. Hemen gaude jendea pentsarazteko, debateak mahai ganean jartzeko eta orain arte nahiko deseriosoak izan daitezkeen gaiak berriz beste era batera eta beste prisma batetik plazara ateratzeko. Hizkuntzarena hor dago, noski. Zetak-en nukleoa Arbizu da eta Hego Euskal Herrian gaztelaniaren eragin handia da. Guk tresna gisa erabili nahi dugu. Euskal Herrian bertan eragin handiagoa izateko, eta, nola ez, Euskal Herriatik kanpo ere eragina izateko.

### Zetak larunbatean aurkeztu zenuen. Nola izan zen esperientzia hori?

Kontzertu-esperientzia, denetarik deitu izan diogu. Gauzak beste era batera egiteko intzentionarekin ari gara lanean eta horregatik lehenengo kontzertu hori nahiko berezia izan da hainbat aspektutan. Hasteko, ez dugu esan non izan behar zen. Gureta harrigarria izan da hainbeste jende prest egotea non den jakin gabe. Hori zen gure apustua. Gauza oso handia egin dugu, eta oso pozgarria da. Gainera, ez zen ohiko kontzertu bat izan. Pertsona bakoitzarendako haririk gabeko entzungailu bat izan genuen eta diskoaren aurrentzunaldiarekin bat hausnarketa batzuekin.

### Zein da hurrengo urratsa?

Diskoa. Durangoko azokan plazaratutako dugu abenduaren 5ean. 6an bertan Durangon joko du Zetak-ek bigarren kontzertua. Horretan oso enfokatuak gaude. **Formatu tradizionalan egongo da?** Esklusiba emango dut: Zigor Samaniego 3D diseinatzaileak hamar diseinu egin ditu, abesti bakoitzarekin bat joango da.

## 11 GALDERA



Altsasuko dermioan barna egiten dituzte ibilbide osasungarriak. Medikuek egunero 10.000 pauso ematea aholkatzen dute.

# "Gero eta arinago, solteago sentitzen zara"

Lontxok eta Juanjo Aldasorok, Mariano Cortesek, Mari Carmen Elsok eta Rosa Orellanak ibilbide osasungarria egin zuten herenegun, Ekai Urkijo begiralearekin batera. Astelehen eta asteazkeneko dute hitzordua, 10:30etik 12:00etara.

**Alfredo Alvaro Igoa** ALTSASU

## 1 Zergatik pasiatu?

**Rosa.** Asko gustatzen zait. **Mari Carmen.** Alferra naiz. Nire kabuz ez naiz ateratzen eta, horrela, nire burua behartzen dut. **Mariano.** Zerbait egiteagatik. Ez nuen ezer egiten eta gogortuta gelditzen ari nintzen. **Juanjo.** Ibilzako ohitura banuen.

Nafarroako Gobernuaren eskaintzarekin hasi ginen.

**Lontxo.** Ibilzako ohitura badut, baina neguan, hotzarekin eta, ez nahi jartzen zara. Horrelakoekin atera behar duzu.

## 2 Nora joaten zarete paseatzera?

**MC.** Aldiro ibilbide berria dugu. Ekaik prestatzen du eta esaten digun tokira goaz. 4 km

inguru dira, joan-etorria.

**R.** Ordu eta erdi aritzen gara. **J.** Denbora horretan egiteko, Altsasun nahikoa buelta daude, errazak, aldapa txikiekin.

## 3 Zer moduz, aurreko aldiarekin konparatuta?

**R.** Aurreko ikasturtean oso pozik egon nintzen. Gaur baino jende gehiago geunden.

**MC.** 13 izatera iritsi ginen. Bakarren batek hasi behar du.

## 4 Pasiatu ondoren, etxera iristean nola sentitzen zarete?

**MC.** Aurreko aldi baino gehiago nekatzen ari naiz aurten.

**M.** Ezer ez egitetik egiten hastera, hobetzen zoazela nabari da: gero eta arinago, solteago sentitzen zara. Gehiago eskatzen dizu. **R.** Buelta bat ematera atera beharra dut, bestela, gaizki.

**L.** Ondo sentitzen naiz. Nabari da argiago eta pixka bat alaiago.

## 5 Pasioak jendea ezagutzeko aukera ematen du?

**J.** Bai, hori, pozgarria da. Beti zer edo zer ateratzen da. Aste honetan Ezkurdiaren kontua. Igandean Osasunak eta Athleticek jolasten dute. Astelehenean badugu adarra jotzeko pixka bat. Ondo, haserretu gabe ibiltzen gara. Giroa jartzen.

**L.** Gainera, lehen herrian agurtzen genuena, orain ezagutzen dugu. Elkarriketak izaten ditugu eta hori ere oso pozgarria da.

## 6 Etorriko ez bazinate, zertan ariko zinatekete oraintxe?

**R.** Etxean, edo mandatuak egiten. Bueltan bazkaria egin beharko dut.

**M.** Agian sofan, telebista ikusten, bazkal-garaira arte.

**MC.** Gauza bat dela bestea dela, beti dut zereginen bat. Astegunetan, egunero ez, baina bizpahirutan ateratzen naiz.

## 7 Podometroa eman dizuete. Moltatzen zarete?

**R.** Ongi. Aurreko ikasturtean egon nintzen, eta zeroan jartzen ez dakidanez Ekairi hori egiteko eskatu diot.

## 8 Aparte erabiltzen duzue?

**MC.** Nire erlojuak pausoak zenbatzen ditu.

**M.** Etxean egin duzunaren ideia izateko, ateratzen ez garenean. Edo mandatuera ateratzen zarenean. Ezer egiten ez dudanetan 3.000-4.000 pauso egiten ditut. Pasio egunetan 10.000-11.000. Eta etxean egiten duzunarekin 15.000 pausora iritsi zaitezke.

**R.** Aurreko aldiain pasioez aparte erabili izan nuen.

**L.** Nik jaiki eta podometroa jartzeko ohitura dut, gauera arte

## 9 Medikuari esan diozue ibilbide osasungarrietan parte hartzen ari zaretela?

**M.** Kiroldegian orri bat eman digute eta egunero ematen ditugun pausoak apuntatzen ditugu. Pentsatzen dut medikuei pasako dietela.

**R.** Iruñeko mediku bati esan diot. "Behartu gabe, baina ahal duzun guztia egin", esaten dit.

**J.** Medikuek beraiek esaten dinate hoberena ibiltzea dela.

## 10 Garrantzitsua ariketa egitea?

**J.** Bi gauza daude hor. Bat, zaletasuna. Azkenean denbora bete egin behar duzu. Eta bestea, hor daudela azukrea, tentsioa, kolesterola... Horri aurre egiteko sendagileek esaten dute gauza ona dela ibiltzea.

## 11 Hau irakurtzen duenak izena eman nahi badu, zer egin behar du?

**M.** Etor daitezela, hobera egiten dutela nabaritutako dutelako. Solteago egonen dira eta ez zara etxean bezain aspertuta egonen.

**J.** Ongi ibiliko da. Gu jende guztiarekin hitz egiteko gogoz egoten gara. **Osorik:** [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**Egutegi pertsonalizatuak urte berrirako**

**2020**

**gk**

948 564 275 | 948 562 107  
 gk@gkomunikazioa.eus